

The background of the entire page is a photograph showing several hands of different skin tones stacked on top of each other, resting on a tree trunk. The hands are positioned in a way that suggests support and unity. The background is filled with green foliage, creating a natural and vibrant setting.

ZAINZA LANAK BERGARAN
ZAINZEN KRISIARI
ERANTZUTEKO BERGARAKO
EKINTZA-PLANA

2023-2026

2022ko abendua

PROIEKTUAREN LIDERGOA



DIRUZ LAGUNDUA



PROIEKTUAREN DINAMIZAZIOA



AURKIBIDEA

1.	SARRERA.....	4
2.	MARKO TEORIKOA.....	5
	Zaintza: zertaz ari gara?	5
	Zaintzaren egoera egun Euskal Herrian:	8
	Zaintza krisia eta zaintzen kate globalaren fenomenoak.....	11
3.	PROZESUA ETA ERABILITAKO METODOLOGIA	13
	1. Prozesuaren oinarriak ezartzea.....	14
	2. Eragile guztiakin partaidetzazko prozesuaren abiatzea.....	15
	3. Esparrukako talde-elkarrizketak:.....	16
	4. Iragazketa teknikorako lan-saioak:.....	17
	5. Planifikazioa:	18
	6. Kontraste politikoa	18
	7. Sozializazioa eta prozesuari itxiera	18
4.	HELBURU ESTRATEGIKOAK ETA HORIEN LORPENERAKO DISEINATUTAKO EKINTZA PLANA	20
	4.1. ZAINZA BERE DIMENTSIO OSOAN ULERTZEA, LAN HAUEK MEREZI DUTEN AITORTZA EGIN	
	ETA IKUSTARAZTEA	23
	4.2. ZAINZAREN KULTURA ERALDATU ETA HAUEK MODU JUSTUAGO BATEAN BANATZEA	29
	4.3. ZAINZA LANETAN DIHARDUTEN LANGILE PROFESIONALEN LAN- ETA BIZI-BALDINTZAK	
	HOBETZEA	33
	4.4. ZAINZA LANAK FAMILIAN EMATEN DITUZTEN ZAINZAILEAK ZAINDU ETA BALDINTZAK	
	HOBETZEA	37
	4.5. ZAINZA MODU DUINEAN JASOTZEKO ESKUBIDEA SUSTATZEA.....	41
	4.6. HIRIGINTZAREN IKUSPEGITIK HERRI ZAINZAILEA LANTZEA	46
	4.7. ZAINZA-KRISIARI IKUSPEGI KOMUNITARIO BATETIK ERE ERANTZUTEN APUSTUA EGITEA	
	49
5.	ADIERAZLEAK.....	53
6.	PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA	58
7.	BIBLIOGRAFIA.....	59

1. SARRERA

Zaintza edo zaintza lanena azken boladan eztabaida publikoan bolo-bolo dabilen hizketa gaia da. Zaintza krisi baten aurrean aurkitzen gara eta zaintza lanak erdigunean jarri eta haien garrantziaren aitortza sozial, politiko eta ekonomikoa egitea ezinbestekoa dela aldarrikatu du Euskal Herriko Mugimendu Feministak. Euskal zaintza sistema publiko-komunitarioa eraikitzeke deia eginez.

Bide honetatik, Bergarako Udalak gaiari heldu nahi izan dio. Gai konplexu eta askotan arantzatsua izan arren gaiari heltzeko premia ere handia da. Hala, helburu honekin 2020. urtean Bergarako zaintzen errealitatea ezagutzeko diagnostikoa bat egin zen. Ondoren, 2022 urtean zehar, diagnostiko hori oinarri hartuta, eta herrian zaintzaren bueltan dauden hainbat eragile eta norbanakorekin elkarlanean eta haien ekarpenekin, zaintza ekintza-plana diseinatzen aritu da. Hurrengo urteetan Bergaran gai honen aurrean garatuko diren ekintza, ekimen eta neurriak zehaztu eta planifikatu. Honako dokumentu hau lan honen emaitza da.

Honakoa da dokumentuaren egitura:

- Lehenik eta behin, gaia kokatzeko marko teoriko bat osatu da. Horren gai konplexua izanik garrantzitsua baita kokapen teoriko hau egitea, nondik abiatzen garen argi izateko.
- Ondoren, metodologia eta lan prozesuaren atalean ekintza-plan hau diseinatzeko jarraitu den metodologia eta eman diren urratsak azalduko dira.
- Hurrengo atalean, ekintza-plana bera jasotzen da. Bertan plan honek dituen helburu estrategikoen kokapen bat egiten da eta helburu bakoitzeko ekintza eta neurrien taulak jasotzen dira.
- Jarraipena eta ebaluazioaren atala dator ostean. Ekintza-plan honen jarraipena eta ebaluazio sistema nola izango den azaltzen duena: nork parte hartuko duena eta nola egingo den.
- Azkenik, bibliografiaren atalean lan honetan erabili den bibliografia aipatuko da.

2. MARKO TEORIKOA

Lan honen helburua Bergaran bestelako zaintza eredu baterantz urratsak ematea da. Bergarako Udaleko sail ezberdinak eta hainbat herri eragileren artean eman beharreko urrats horiek identifikatu eta aurrera eramateko antolatzea. Hurrengo lerroetan gaiaren inguruko kokapen teoriko bat egingo da, identifikatutako ekintza eta neurrien garrantzia eta beharrezkotasunean kokatuko gaituztenak.

Lehenik eta behin, zaintza edo zaintza lanen gaian sakonduko da: hau da, ***zertaz ari gara zehazki zaintzaz ari garenean***. Ondoren, Euskal Herrian (edo hobe esanda EAEn) ***daukagun zaintza sistemaren errepasso labur bat*** egingo da.

Zaintza: zertaz ari gara?

Zertaz ari gara zaintzaz edo zaintza lanez hitz egitean? Zeri egiten zaio erreferentzia? Zaintza hain da kontzeptu zabala, sarri esaten den moduan “dena eta ezer ez” izan daitekela. Hortik, kontzeptu hau definitzeko beharra. Helburu honekin nazioarteko zein Euskal Herriko autore eta erakunde ezberdinen definizioei helduz zaintza edo zaintza lanen kokapen teoriko bat egingo da.

ONU Mujeres erakundeak honela definitu zuen: *“Zaintzak pertsonen egunerokotasuneko ongizate fisiko eta emozionala birsortzen ahalbidetzen duten jarduerak dira. Zainketek bizitza kudeatzeko eta mantentzeko eguneroko zereginak hartzen dituzte barne, hala nola, etxeak mantentzea, familiako kideak zaintzea, seme-alabak hezteak eta norberaren burua zaintzea”*.

Lanaren Nazioarte Erakundeak (OTI) ere ildo beretik honela definitzen ditu zaintza lanak: *“persona bat edo askoren behar fisiko, psikologiko eta emozionalak bermatzeko lanak barnebiltzen dituzte, izan hauek ordainduak edo ordaindu gabeak”*.

Definizio hauek pertsonen ongizaterako eta bizitzaren etengabeko birsorkuntzarako beharrezko jarduera gisa definitzen ditu zaintza lanak, lan hauen garrantzia eta beharrezkotasuna aitortuz.

Lan hauen garrantzia eta beharrezkotasuna aitortuz, **Bizitzak erdigunera Euskal Herriko koordinadora feministak** 2022ko otsailean “Zaintza sistema publiko-komunitario feminista baterantz” jardunaldietan ere honela definitu zuen zaintza: *“Zaintza bizimodu duina edukitzeko oinarria da. Gure gorputzen eta gure komunitateen iraunkortasunerako ezinbestekoa; hau da, bizitza, ongizatea eta osasuna iraunarazteko eta kudeatzeko”*.

Bizitza, ongizatea eta osasuna iraunarazteko beharrezko diren jarduerak askotarikoak dira. Amaia Pérez Orozcok, ONU Mujeres-en baitan idatzitako “por qué nos preocupamos de los cuidados” (2014) zaintza lanen inguruko monografikoan **zaintza lan hauek hiru jarduera mota** barne hartzen dituztela aipatzen du:

- Batetik, **zainketa zuzena** legoke. Hauek pertsonen elkarreragin zuzena eskatzen duten zereginak, osasun fisikoa eta emozionala lortzeko lan edo jarduerak dira: esaterako, jaten eman, garbitu, medikazioa eman, oreka emozionala izan dezan lagundu, hala nola entzun edo kontentzioa eman.
- Bestetik, **zainketaren aurrebaldintzak** deituriko jarduerak daude. Hauek zainketa zuzenak ahalbidetzen dituzten baldintza materialak ezartzen dituzten zereginak dira: esaterako, arropa eta etxea garbitu, erosketak egin, etxeko fakturak ordaindu.
- Azkenik, **kudeaketa mentala** ere zaintza lan gisa kontsideratzen da. Kudeaketa mentalaren baitan koordinazio-, plangintza- eta gainbegiratze-lanak daude. Izan ere, pertsona bat zaintzea ez da soilik zuzenean edo zeharka norbait artatzea, baizik eta egoera mental bat: *“ez da ekintza zehatz bat, lanen bat egiteko denbora potentziala baizik”* (Borderias, Carrasco, Torns, 2011:65). Honako jarduera motak barne hartzen ditu: errebisio medikuak planifikatu; elikadura orekatu eta osasuntsua planifikatzea; gustuak edo alergia edota bestelako osasun arazoak kontuan edukitzea; edo norbaiten egoera emozionalagatik arduratua egotea.

Modu honetan, ikusten da zaintza lanak askotariko jarduerak barne hartzen dituela. Pertsonen ongizatea, ez soilik **fisikoa**, baita **psikologikoa**, **emozionala** eta **soziala** ere bermatzeko askotariko ekintzak behar-beharrezkoak batira. Gainera, hauek, intentsitate eta forma ezberdinetan bada ere, pertsona guztiak gure **bizitza osoan zehar behar** ditugu. Hau guztiagatik, garrantzitsua da zaintza lanen garrantzia aitortu eta hauen gaineko ikuspegia zabaltzea. Hau da, mendekotasunaren ikuspegitik harago begiratzea.

Pertsona guztiak **zaugarriak** eta **interdependentek** (elkarren arteko mendekoak) gara: pertsona guztiok, gure bizitza osoan zehar dauzkagu zaintza beharrak, horien intentsitatea eta gure kasa erantzuteko gaitasuna momentu eta egoeraren arabera aldakorra izan daitekeen arren. Horregatik, **autonomiaren mitoaren** aurrean, gizakion zaugarritasuna eta interdependentzia onartu eta honen araberako gizarte antolakuntza bat eraikitzea beharrezkoa da.

Ikuspegi honetatik zaintzak gizaki guztion eskubidea direla baieztatu daiteke. Izan ere, **guztioak baditugu zaintza beharrak, zaintza horiek modu duinetan jasotzeko eskubidea** eskubide unibertsala da, edozein delarik gure egoera ekonomiko edo harreman sarea. Hau da, garrantzitsua da, zaintzak pertsona bakoitzak bere baldintza material edo familiarren arabera era indibidual eta pribatua kudeatu baino, modu kolektiboan eta eskubideen markoan kokatzea, pertsona guztiei bermatu beharreko eskubide gisa.

ONU Mujeres erakundeak 2021an Mexikon eginiko “Alianza Global por los cuidados”-en baitan ohartarazi zuen bezala *“zaintzen dituzten pertsonen eta zainketak jasotzen dituztenen eskubideak formalki aitortu behar dira; eta zaintza-sistemak eskubide horiez gozatzera bideratu behar dira”*. Eta aipatu zuen *“zaintzaren aldeko Aliantza Globalaren oinarria da zaintzak eta etxeko lanak funtsezko premia unibertsala direla, eta pertsonen eta etxeen ongizatean, garapen sozialean eta hazkunde ekonomikoan laguntzen dutela, baina askotan ez direla aintzat hartzen eta baloratzen”* (ONU Mujeres).

Aldi berean, zaintzeko gaitasuna egoeraren arabera aldakorra izan daitekeen arren, guztioak daukagu **zaintzeko eskubidea** ere, baita zaintza hau modu eta baldintza duinetan emateko ere. Hau da, zaintzak desabantaila-egoerarik ekar ez dezan eta zaintzaileak, bereziki emakumeak, mendekotasun- eta kalteberatasun-egoeran jar ez ditzan baldintzak bermatu beharko genituzke. Are gehiago, zaintza bere gain hartzea beste edozein aukera inposatzean, beldurrean eta benetako gabezia oinarritzen denean, zaintzarik ez izateko eskubidea planteatzea ere litekeena da.

Gainera, **zaintzak emateko gaitasuna** denok badugu, denok inplikatu beharko ginatekeen zaintza lanetan eta hauen ardura modu justu eta orekatuago batean banatu beharko zitekeen, eta ez gaur egun geratzen den bezala genero, klase, jatorri, arraza eta adinaren araberako arrakaletan oinarrituta.


Beraz, gizarte bakoitzak zaintza lanak gizaki guztion beharrei erantzuteko antolatu beharko lituzke, eta horiek ez lukete generoa, arraza, jatorria edota klase aldagaiak zeharkatu beharko. Zentzu honetan, feminismitik zaintza lanen ardura ez dela indibiduala eta pribatua, kolektiboa eta politikoa baizik aldarrikatzen da.

Zaintzaren egoera egun Euskal Herrian:

Behin, zaintza kontzeptuaren definizioa eta honen garrantzia azpimarratuta, atal honetan gaur egungo EAEko zaintzaren egoeran sakonduko da, gaur egungo euskal zaintza erregimen edo antolakuntzaren ezaugarri nagusiak azalduz.

Gizarte ezberdinetan dauden zaintza sistema edo antolaketak sailkatzeko, **zaintzen diamantea** (Ravazi, 2007) delakoa erabili ohi da. Irudi honen bitartez gizarte bakoitzak dituen zaintza beharrei nola eta zein eragileren bidez egiten dien aurre aztertzea da helburua.

Erdigunean, zaintzak jasotzen dituen pertsona legoke, eta honen inguruan artikulatzen dira eragile ezberdinak. Gizarte bakoitza kokatzen den tokiaren arabera, zaintza behar horiek modu batean edo bestean erantzuten diela ikus dezakegu.



Zaintza hauek nagusiki familiak asetzen baditu **sistema familista** baten aurkituko gara. Batik bat merkatuan asetzen badira **sistema merkantilista** batean. Estatuak zerbitzu publikoen bidez asetzen baditu, **sistema publiko** batean. Eta nagusiki komunitatea arduratzen bada haietaz, **sistema komunitario** batean. Orokorrean Europako estatu mediterraneotan (tartean EAE kokatzen den Espainiar Estatuan), zaintza hauek nagusiki familian eta, neurri txikiago batean, estatuaren bidez asetzen dira. Hala ere, guztiz garatu gabeko ongizate estatuaren narriaduraren ondorioz, eta familia eredutan egondako aldaketak bultzatuta, zaintza behar hauek merkatuaren bidez asetzeko gero eta joera handiagoa dago.

Gure gizartean nagusi den **sistema familista** honetan, familiak dira zaintzaren ardura unitateak. Hau da, familiak (eta bertan batik bat emakumeak) dira zaintza lanez arduratzen direnak, “zaintza beharrei irtenbidea bilatzen diotenak eta administrazio publikoaren gabezia eta

bizitzaren esparru guztiak bateratzeko baliabide urriak, askotariko estrategiak erabilia hornitzen dituztenak (doan zaintzeko denbora bidez edo zaintza erosteko diru bidez)” (EMAGIN, 2020).

Bestetik, **geroz eta merkantilistagoa** ere bada. Izan ere, zaintza beharren handitzeak eta familia eredu berrien eraginez zaintzen desfamiliarizazio prozesua gertatu da. Hau da, familiek, nahi ez dutelako edo ezin dutelako, zaintza lanen kargu zuzena hartzen ez dutenean, eta beharrak asetzen ez dituen zaintza zerbitzu eta baliabide publikoen aurrean, merkatuaren gain gelditzen da horiek hornitzeko ardura, eta ondorioz, etxeko langileen eta zerbitzu pribatuen kontrataziorako joera nagusitzen ari da. Hau da, zaintzako denborarik uzten ez duen sistema batean, familiek zaintza beharrak merkatuaren bidez asetzen dituzte, zaintza lanak externalizatuz.

Externalizazio hau zerbitzu publikoen gabezien aurrean, batik bat **merkatuaren bidez** egin da. Gainera, oraindik dirauen zaintzaren ideia aurrean, zeinak zaintzarik onenak etxean eta maitasunez ematen direnak diren, familian ase ezin diren zaintza behar horiek asetzeko **batik bat etxeko langileen kontrataziora jo** da (etxekoa bezalakoa den pertsona bat). Hala, erabili den estrategia ohikoena merkatuaren bidez **emakume txiroagoei lan horiek erostea** izan da, batik bat emakume migratuei. Zaintza sektorea emakume migratuentzat lan-nitxo bilakatuz. Datuok erakusten duten lez, zaintzen externalizazio prozesu hori gero eta nabarmenagoa da. Eustatek osatutako **Kontu Ekonomikoek** jasotzen duten moduan, EAEn etxeko zerbitzuetan enplegatuta dauden pertsonen kopurua %27 igo da 2005tik 2014ra.

Gainera, orain arte familia izan denez zaintza lanen pisua eta ardura izan duena, lan hauen externalizazio prozesua ere bere gain egon da. Hala, etxe edo familia bakoitzean era ezberdinean gauzatu da: **familia bakoitzaren baliabide ekonomiko eta sare sozialaren arabera** hain zuzen.

Aldi berean, sistema familista eta gero eta merkantilistago baten aurrean aurkitzen bagara ere, ezin da ahaztu, zaintza erregimena guztiz **feminizatua** eta, geroz eta arrazializatuagoa, dagoela. Oraindik ere, lan ordaindu zein ez ordainduetan, emakumeak dira nagusiki lan hauetan jarduten dutenak. Eta esparru profesionalean (edo lan ordainduetan) gero eta gehiago, **klase baxuko emakumeak eta migratuak**. Datuek errealitate hau islatzen dute, izan ere Eustaten *Emakumeak eta gizonak Euskal AEn. 2022: Erantzunkidetasuna eta kontziliazioa* txostenak jasotzen duen moduan, lan merkatuan ari diren emakumeen %10 zaintza lanetan dihardute. Aldi berean, etxeko langileen %90 emakumeak dira.

Bestalde, EHUko Soziologia eta Gizarte Langintza Sailak 2019ko maiatzean argitaratutako *“Diagnóstico de situación de las personas trabajadoras del hogar en la CAE y de las necesidades a las que dan cobertura”*¹ txostenak jasotzen duen moduan, EAEko **jatorri atzerritarren laneratze nagusia etxeko lanak** dira, 2010 eta 2014 tartean %21,3tik %29,3ra pasa zirelarik (hauetatik, %95,6a emakumeak izanik). Gainera, Lanaren Nazioarteko Erakundearen arabera, sektoreko beharginen %30ak ezkutuko ekonomian dago. Beraz, errealitatea datu ofizialetan islatzen dena baino zabalagoa da.

Familien baitan eta etxeetan **gizonek haien erantzukizuna hartu gabe** jarraitzen dute, eta emakumeak jarraitzen dute zaintza lanak bere gain hartzen. Eustaten Denboraren Erabileraren datuak diote, 2021ean, EAEn emakumeek zaintzen eta etxeko lanen %67,2 betetzen dituztela, gizonek %32,8a betetzen duten bitartean. Gainera, txikia bada ere, goranzko joera du dedikazio honek, emakumeek 2013an baino %0,5 gehiago dedikatu bait diote.

Aldi berean, 2021eko Gizarte Segurtasunaren datuen arabera, senideak zaintzeko eszedentziak ere maizago baliatzen dituzte emakumeek, bereziki seme-alabak zaintzeko: Gipuzkoan familiakoen zaintzarako eskatutako eszedentzia guztietatik %74a emakumezkoek eskatu zuten, gizonek soilik %26a.

Beraz, agerikoa da gaur-gaurkoz EAEko zaintza antolaketa guztiz bidegabea dela: zaintza lan hauek genero, klase, arraza eta jatorriaren arabera banatuta daudelako. Eta gutxi ez balitz, lan hauen, izan ordaindu edo ez ordainduak, prekarietate handia eta ikusgarritasun eta aitortza sozial txikia dutelako.

Prekarizazioa da gaur egun zaintza erregimen honen beste ezaugarri nabarmenetako bat. Batetik, zaintza lanak era profesionalean egiten ez dituzten pertsonen bizi baldintzetan eragin zuzena dutelako zaintza lan hauek, izan enpleguan izan dezaketen kalte edo zailtasunak, edo denboraren prekarietatea (auto-zaintzarako, parte-hartze sozio-politikorako edo aisialdirako). Bestetik, zaintza lan ordainduetan jarduten dutenen lan-baldintzak ere orokorrean guztiz prekarioak dira: ordutegi luzeak eta bizitza pertsonalarekin uztartzeko zailak (edo ezinezkoak); soldata baxuak; lan-karga eta lan intentsitate altua (fisikoki zein psikologikoki oso exigentea); normalean lan-ezgonkortasun handia; zeinbait kasutan tratu txar egoeratan; eta guztiak apenas aitortza sozialik gabe.

¹ https://www.euskadi.eus/contenidos/noticia/osalan_not_newsletter2_hogar/es_def/adjuntos/Estudio-diagnostico-empleadas-hogar-es.pdf

Zaintza langileen artean barneko etxeko langileen egoera da, ezbairik gabe, guztietan egoera lazgarrienean dagoena eta premiazko aldaketa behar dituena.

Bestetik, ezin ahaztu ere, emakume migratu eta arrazializatuak beste zapalkuntza eta zailtasun gehigarriak ere pairatzen dituztela, hala nola, Atzerritartasun Legeak ezartzen duen irregulartasun egoera, bakardadea edota arrazakeria. Haien lan- eta bizi-baldintzetan eragin zuzena dutenak.

Hala ere, zaintza-sektoreko langileen artean egoera eta errealitate oso ezberdinak badaude ere, orokorrean sektore guztiak pairatzen ditu neurri batean prekarizazioa eta lan-baldintza txarrak.

Bestetik, **zaintza lanen ikusgarritasun eza eta aitortza sozial txikia** lan hau ezaugarritzen duen beste elementu bat da. Orokorrean eta ikuspegi historiko batetik, zaintza lanak mundu produktibotik kanpo kokatu izan dira. Historikoki emakumeek etxetan eta era pribatuan doan egindako lanak izanik, profesionalizatzen direnean ere, prestigiorik gabekoak, kualifikatu gabeak eta gaizki ordainduak izan dira.

Gainera, izan modu profesionalean zein familiaren baitan, batik bat eremu pribatuan (etxeetan) hornitzen eta kudeatzen jarraitzen dira. Ikusgarritasun ez horren ondorioz, eztabaida politiko eta publikotik guztiz at egon izan dira, ez dira eskubide sozial eta politikotzat hartzen. Honek mesede egiten dio sistema kapitalistari, ekonomiak ez baititu bere gain hartzen zaintza lanek dituzten kostuak (doan edo lan-esku merke bitartez asetzen baitira).

Zaintza krisia eta zaintzen kate globalaren fenomeno

Agerian geratu den bezala, **zaintza lan hauek justizia sozialetik kanpo** gelditzen den errealitate batean ematen dira: batetik, lan hauen banaketa (lan ordaindu eta ez ordainduetan) erabat desorekatua delako genero, klase, arraza, jatorri eta adinaren arabera arrakaletan oinarrituta; eta gainera, lan hauen aitortza sozial, politiko eta ekonomiko urria dela eta, lan hauek egiten dituzten pertsonen bizitzetan prekarizazioa dakarrelako.

Gainera, gero eta nabarmenagoa da **egungo zaintza ereduak gizarteak dituen beharrak ez dituela asetzen**. Jada **zaintzaren krisi baten aurrean** aurkitzen gara, eta tamalez, datuek erakusten duten hau etorkizunean handituz joango da fenomeno izango dela.

Biztanleriaren zahartze progresiboa ematen ari da azken hamarkadetatik hona (bizi kalitatearen hobekuntzaren eta aurrerapen medikuek hala bultzatuta) eta, honi lotuta, menpekotasun

indizeak ere gora egin du. Bestetik, familia ereduak geroz eta anitzagoak dira (txikiagoak, elkarrengandik urrun bizi dira...), eta ondorioz, zaintza lanak familiaren baitan eman eta jasotzea geroz eta zailago bihurtu da. Aldi berean, emakumeen lan merkaturatzeak ere etxe barruko zaintza sistema asetzeko beste behar batzuk jarri ditu agerian.

Zaintza krisi betean aurkitzen garen honetan, krisi honi erantzuteko mendebaldeko herrialdek hartu duten estrategia nagusia zaintza behar hauek emakume txiroagoen lan esku merkearen bidez asetzea izan da, gehienetan hegoalde globaleko herrialdeetako emakumeen bidez.

Beharrak horren dira handiak eta baldintzak horren txarrak, herrialde bertako pertsonak ez daudela prest lan horiek hartzeko, eta beraz, herrialde pobretutako pertsonentzat (berezi emakumezkoentzat) lan merkatu bihurtu dira.

Etxeko langile etorkinek jatorrizko herrialdeetan zaintza-erantzukizunak izan ditzakete, eta, oro har, beste emakume batzuei transferitzen zaizkie. Hala ere, urrutiko zaintzaileen rola betetzen jarraitzen dute, jatorrian helmugako herrialdetik dituzten loturak mantenduz. Honek, zaintzari lotutako maila globaleko fenomeno bat ekarri du; Hirschfeld-ek (2001) ***zaintzen kate globala*** bezala izendatu zuena, hain zuzen. Termino honek zainketa-lanean oinarritutako pertsonen arteko harremanak azaltzen ditu. Zehazki, zainketen transferentzia izendatzen du.

Horregatik, zaintza krisi honek eragin zuzena izan du migrazio-fluxuen gorakadarekin. Migrazio hau oso feminizatua da, nagusiki zaintza-lanak asetzeari bideratua baitago, lanaren banaketa sexuala eta nazioartekoa erabiltzen duen globalizazio neoliberalaren testuinguruan (Orozco, 2007; Parella, 2003).

Hau da, emakume migratuek bizirauteko helburuz beren jatorrizko herrialdeak utzi behar izan dituzte, beren zaintza ardurak propioak beste norbaiten esku utziz, helmuga den herrialdean beste norbaitek bete ezin dituen zaintza-lanak asetu ahal izateko. Zaintzen kate globalak etxeen arteko loturak dira, bizitzaren iraunkortasunerako beharrezko prozesuak bermatzeko ematen direnak, batetik bestera zaintza lanak transferituz.

Herrialdeak zeharkatzen dituzten sareak dira, mugen gaineratik, etxe batzuetako eguneroko errealitatea beste etxe batzuetan gertatzen denak baldintzatzen duen.

3. PROZESUA ETA ERABILITAKO METODOLOGIA

Prozesuaren helburu nagusia, Bergarako zaintzen inguruko diagnostikoa oinarri hartuta, zaintzen krisiari erantzuteko ekintza-plana diseinatzea izan da, Udalaren eta herriko eragileen artean.

2022ko maiatzetik abendura arte iraun duen ibilbide honetan zehar, **parte-hartzea** oinarrizkoa izan da, uneko errealtatea aldatzeko baldintza subjektibo eta objektiboak sortzea ezinbestekoa baita. Aldi berean, prozesuaren oinarria pertsonak diren heinean, egoera eta behar espezifikotara egokitzeko **malgutasuna** izan du abiapuntu. Emaitzez gain, **prozesuak** berak protagonismo berezia izan du; hau da, emaitzak ez ezik, prozesuaren xedea ere badela bertan parte hartzen dutenek (norbanako, talde eta erakundeek) prozesuan ikastea, ezagutza elkarrengandik jaso eta elikatzea, elkarrekin eta elkarbanatuz. Partaidetza-prozesu hau **eraldaketa** prozesu bat izan da.

Azkenik, prozesuaren ardatza, gaia izateaz gainera, **zaintza** izan da; pertsonen sentimenduek, bizipenek eta pertsonen arteko harremanek pisu nabarmena izan dute prozesuaren urrats guztietan.

Printzipio hauen baitan, hasiera batean diseinatutako lan-prozesua etengabe egokitu behar izan da, helburu orokorraren baitan eta hasierako markoa mantenduz, ibilbidean sortzen joan diren erroka ezberdinei erantzun asmoz.

Partaidetzaren inguruko datuei dagokionean, honako datu hauek jaso dira jarraian:

- **Guztira, 45 pertsonak hartu dute parte; 37 emakumek eta 8 gizonak.**
- Huetatik, **8 Udal ordezkariak** izan dira:
 - o 5 emakumek eta gizon 1ek maila teknikoan hartu dute parte.
 - o Aldiz, 2 emakumek maila politikoan.
- Bergarako **15 elkarte, talde, erakunde...** hartu dute parte. Hauen ordezkartzan, 22 pertsonak; 15 emakumek eta 7 gizonak.

1	ARANSKI
2	ASPACE
3	Cáritas
4	Duintasuna pentsionisten elkarte
5	Eguneko zentroko langilea
6	Ehundu
7	Eulen

8	Goyeneche fundazioa_Garagunea
9	Goienanagusi
10	Guraso taldeko kidea
11	Jardun
12	Mariaren Lagundia ikastetxea
13	Nagusilan
14	San Joxepe jubilatue elkarte
15	SOS Arrazakeria

- **13 emakumek, zaintzaile profesional nahiz familiarrak** diren heinean hartu dute parte.
- Eta azkenik, prozesuaren ko-diseinu, dinamizazio eta aholkularitza teknikoan Farapitik 2 emakumek hartu dute parte prozesuan.

Ondorengo orrietan prozesuaren nondik norakoak datoz jasota. Oinarrian, hauek dira emandako urratsak:

1. Prozesuaren oinarriak ezartzea

Prozesua gidatu eta urratsei jarraipena emateko, Plana Bergarako herriko eta Udaleko errealitatera egokitzen dela bermatzeko, tokiko eragile estrategikoak identifikatu eta hartu-emaña kudeatzeko eta, aurrera begira, planari jarraipena emateko funtzioez arduratu den **TALDE ERAGILE bat** egon da hilabete hauetan. Talde Eragile hau Berdintasun eta Ongizate arloek osatu dute, Farapi Kooperatibako kideekin elkarlanean.

Ehundu Eraldaketa Sozialerako proiektuak ere hartu du parte, zeharka bada ere, proiektuari ikuspegi komunitarioa eman nahian, kokapen eta marko ideologikoa erraztuz.

Honenbestez, lehenengo fase honetan 2020ko Zaintza Diagnostikoaren emaitzen ondorioen errebisioa eta osatzea burutu zen, aldi berean, marko ideologiko-kontzeptualaren definizio partekatuko lehen hurbilpena egin zelarik. Ariketa hau, Berdintasun eta Ongizate departamentuetako teknikariek egin zen, baita Ehundurekin batera ere.

Honekin batera, lan-prozesuan parte hartzea estrategikotzat jotzen zen eragileen identifikazioa, lan-prozesuaren kontrastea, kalendarizazioa, dinamiken zehaztea eta funtzionamendua zehazteko ariketa egin zen.

Honako eragile hauek hartu dute parte urrats honetan:

- Berdintasun zinegotzia

- Berdintasun teknikaria
- Ongizate arloko arduraduna
- Ongizateko 3 gizarte langileak
- Ehunduko teknikaria
- Farapiko 2 kidek

Guztira, 7 emakume eta 2 gizon izan dira.

2. Eragile guztiekin partaidetzako prozesuaren abiatzea

Esan bezala, proiektu honen helburuetako bat lan-prozesua Bergarako errealitate eta beharrei erantzutea izan da, hori bait da ekintza-plan baten arrakastaren oinarria, behar konkretuei erantzutea. Eta helburu hori ezingo litzateke bete Bergaran zaintzaren inguruan lanean ari diren eragile eta norbanakoen partaidetzarik gabe.

Helburu horri begira, metodologikoki, partaidetzak momentu ezberdinak izan ditu prozesuan zehar. Lehenengo urratsean definitutako Talde Eragileak oinarriak finkatu eta jarraipena eman dio prozesu guztiari. Eta aldi berean, herriko eta Udaleko beste eragileekin ere hartu-emanak diseinatu eta garatu dira.

Lehen momentu honetan, zaintzari lotutako herriko elkarte, talde, erakunde...-tako ordezkariekin saio bateratu bat egin zen, non zaintzaren inguruko definizio bateratu baterako lehen hurbilpena landu zen (abiapuntuak adostuz) eta herri mailako erronka nagusien identifikazio ariketa egin zen.

Saio honek, prozesuari modu zabalago batean hasiera emateaz gainera, hurrengo urratsetarako oinarria emateko estrategikoa izan zen.

Hau da saio bateratu honetan parte hartu zutenen zerrenda:

- Berdintasun zinegotzia
- Berdintasun teknikaria
- Ongizate arloko arduraduna
- Udaleko gizarte langileak
- Ehunduko teknikaria
- Jardun
- ARANSKI
- Eguneko zentroko langilea

- Eulen, etxez etxeko zerbitzuaren koordinatzailea
- SOS Arrazakeria
- Duintasuna pentsionisten elkarte
- Goiena Nagusi
- Cáritas
- San Joxepe jubilatue elkarte
- ASPACE
- Farapi

Guztira, 12 emakume eta 5 gizon.

3. Esparrukako talde-elkarrizketak:

Saio bateratuan landutako erronka nagusiak abiapuntu hartuta, talde-elkarrizketak antolatu ziren. Saioak antolatzerako orduan, honako sailkapen honen baitan egitea erabaki zen, esparrukako behar eta proposamenak jasotzeko asmoz:

- 1. taldea: Zahartzaroa
- 2. taldea: Zaintzaile ez-profesionalak
- 3. taldea: Zaintzaile profesionalak
- 4. taldea: Aniztasun funtzionala
- 5. taldea: Hautzaroa

Saioetara bertaratu ezinagatik edo zenbait ikuspegitan sakontzeko intentzioz, bakarkako elkarrizketak ere egin ziren talde-elkarrizketen atzetik. Honako hauek hartu zuten parte, modu batean edo bestean:

Saio ezberdinetan zehar honakoek hartu dute parte:

Elkarte, erakunde, taldeen... ordezkartzan:

- Duintasuna pentsionisten elkarte
- Nagusilan
- San Joxepe jubilatue elkarte
- Goiena Nagusi
- ARANSKI
- ASPECE
- Cáritas
- Eguneko zentroa

- Eulen
- Goyeneche fundazioa_Garagunea
- Guraso taldea
- Jardun
- Ehundu
- Mariaren Lagundia ikastetxea
- SOS Arrazakeria

Zaintzaile profesional nahiz familiarak diren heinean:

- Etxeko langileak
- Etxeko Laguntza Zerbitzuko langileak
- Eguneko zentroko erizain laguntzaileak
- Dependentsia duen adin txikiko alabaren zaintzailea
- Dependentsia duen etxean zaindutako amaren zaintzaile emakumeak

Udal ordezkari teknikoan:

- Berdintasun teknikaria
- Udaleko gizarte langileak
- Hezkuntza eta Partaidetza teknikaria
- Farapiko 2 kide.

Guztira, 29 emakumek eta 4 gizonen hartu dute parte.

4. Iragazketa teknikorako lan-saioak:

Saio bateratuan eta esparrukako talde-elkarrizketetan, nahiz bakarkako elkarrizketetan, jasotako proposamen guztiak iragazteko irizpideak zehaztuko ziren ondoren. Horren arabera, lehenetsun eta egingarritasun ariketa bat egin zen proposamen guztiak maila tekniko batean baloratzeko, beti ere hasierako momentuan zehaztutako helburu estrategikoen markoa presente izanik. Modu honetan, ideiak lurreratzea zen, ekintza-planak jasoko zituen ekintzen lehen zirriborro bat lortuz.

Iragazketan ariketa hau Udaleko Berdintasun, Ongizate eta Gazteria arloetako arduradun teknikoekin egin zen, aurretik markatutako esparruen estrukturalari jarraiki. Hauez gain, Ehunduk, Jardunek (Udalari haurtzaroari eta nerabezaroari lotutako zerbitzua ematen dion enpresak) eta Martxanterak talde feministak ere hartu dute parte iragazketa ariketa honetan.

Hortaz, honako eragile hauek hartu dute urrats honetan:

- Berdintasun teknikaria
- Ongizate arloko arduraduna
- Ongizateko gizarte langileak
- Ehunduko teknikaria
- Farapiko 2 kide

Guztira, 5 emakumek eta 2 gizonek hartu dute parte.

5. Planifikazioa:

Iragazketa ariketarekin amaituta, ekintza-planaren ekintza zerrendaren lehen zirriborroa osatuta, planifikazioari heldu zitzaien. Honenbestez, ekintza-bakoitza aurrera eramateko beharrezko baliabide pertsonal nahiz materialen zehaztapena, eta denboran antolatzen.

Ariketa hau Talde Eragileko kideekin egin zen:

- Berdintasun zinegotzia
- Berdintasun teknikaria
- Ongizateko zinegotzia
- Ongizate arloko arduraduna
- Farapiko 2 kide

Guztira, 5 emakume eta gizon 1.

6. Kontraste politikoa

Hasieratik argi jarri nahi izan da, bereziki zaintza lanei lotuta, adostasun politikoak duen garrantzia. Hortaz, estrategikoa izan da Bergarako Udaleko Gobernu Taldea uneoro prozesuan txertatzea (Talde Eragilearen bitartez, nahiz koordinazio tekniko-politikoaren bitartez). Azken batea, hauei egokituko zaie ekintza-plana bultzatzea eta garatu ahal izateko oinarrizko baliabideak bermatzea.

Aldi berean, oposizioko taldeekin ere lanketa konpartitzea ezinbesteko ariketa da, etorkizunari begira ez dadin izan aldaketa politikoek eragin ahal izango dion esparrua, adostasunetik abiatuko den lanketa izan dadin.

7. Sozializazioa eta prozesuari itxiera

Sozializazioa, komunikazioa, konstante bat izan da lan-prozesu guztian zehar. Partaidetzazko prozesuetan ezinbestekoa da alderdi komunikatiboa ondo lantzea (mezuak argiak izatea eta

prozesua garatzeko ezinbestekoa den informazio guztia eskuragarria izatean –bilera datak, tokiak, etab-).

Prozesuak komunikazio irekirako momentuak izan ditu, Udalaren euskarri komunikatiboen bitartez egindakoak: hasieran, prozesuaren abiatzearen eta helburuen berri emateko, eta amaieran, prozesuari itxiera emanaz, emaitzaren eta hartutako konpromisoen berri emateko.

Baina izan duen beste zeharkako komunikazio ariketa garrantzitsua jarraikortasun batez emandakoa izan da; urratsez urrats, partaide guztiei aurretik egindakoaren eta hurrengo urratsen berri emanaz, ikuspegi orokorra izan zezaten bultzatuz.

4. HELBURU ESTRATEGIKOAK ETA HORIEN LORPENERAKO DISEINATUTAKO EKINTZA PLANA

Plangintza honek jasotzen dituen helburu hauek iparra edo norantza markatzen digute; zaintzaren gai konplexu eta arantzatsu honetan, gizarte gisa, norantz joan beharko genuke, zein gauza aldatu edo eraldatu behar genituzke zaintza sistema edo antolaketa justuago bat sortzeko bidean.

Hemengo hauek helburu estrategiko edo orokorrak dira, Bergarako I. Zaintza Plana den honetan helburu horiek lortze bidean eman daitezkeen urratsak jaso direlarik. Eraldaketa honek ibilbide luzea behar duela kontziente izanik, eta plan honek dauzkan mugen jakitun (eskumenak, irismena eta baliabideak), hurrengo 4 urteetan helburu hauei begira egin daitezkeen (Bergarako Udalak egin edo bultzatu ditzakeen) ekintza konkretu eta egingarriak jaso dira.

Ekintza batzuk zaintzaren dimentsio makroari erantzuten diote. Eraldaketa horren bidean oinarriak jartzera bideratuta daude, batik bat zaintza lanen inguruan dagoen kultura eta iruditegia eraldatzen hasteko sentsibilizazio ekintzak dira horiek. Beste batzuk, berriz, dimentsio mikroari (tokikoari, zehatzari) arazo edo zailtasun konkretuei konponbide edo hobekuntza konkretuak proposatzen dizkiote. Oreka bilaketa irizpide izan bada ere, gaiaren konplexutasuna eta izaera estrukturala, eta benetako eraldaketa baterako (mugak) kontuan izanda, I. Plan hau lehen hurbilpen moduan ulertu beharra daukagu.

Azaroa izaera sistemikoak konponbideak konplexu bihurtzen ditu, sistema bera arrakalatzeari baitakar. Aldi berean, Feminismoak aldarrikatu bezala, zaintza gaiak badu sistemaren eraldaketarako gaitasuna. Hala ere, ortzimuga argia da eta, pausuz pausu, bidea egiten hastea beharrezkoa da.

Hauek dira plan honek jasotzen dituen helburu estrategikoak:

- 1. ZAINZA BERE DIMENTSIOSAN ULERTZEA, LAN HAUEK MEREZI DUTEN AITORTZA EGIN ETA IKUSTARAZTEA**
- 2. ZAINZAREN KULTURA ERALDATU ETA HAUEK MODU JUSTUAGO BATEAN BANATZEA**
- 3. ZAINZA LANETAN DIHARDUTEN LANGILE PROFESIONALEN LAN- ETA BIZI-BALDINTZAK HOBETZEA**
- 4. ZAINZA LANAK FAMILIAN EMATEN DITUZTEN ZAINZAILEAK ZAINDU ETA BALDINTZAK HOBETZEA**

5. ZAINZA MODU DUINEAN JASOTZEKO ESKUBIDEA SUSTATZEA**6. HIRIGINTZAREN IKUSPEGITIK HERRI ZAINZAILEA LANTZEA****7. ZAINZA-KRISIARI IKUSPEGI KOMUNITARIO BATETIK ERE ERANTZUTEN
APUSTUA EGITEA**

Ekintzak antolatzerako orduan helburu estrategiko hauen lorpenaren baitan egin bada ere, sarritan oso lotuta dauden ekintzak dira, helburuek ere lotura handia bait dute euren artean. Hortaz, zenbaitetan ekintzak berak enfasia jartzen duen ideiak baldintzatu du kokapena. Baina horrek ez du esan nahi beste helburuen lorpenean ere ez duenik bere eragina, edota enfasia beste nonbaiten jarriz gero, beste atal batean kokatzeko logika izan beharko ez lukeenik.

Gainera, sarritan aldi berean eta modu koordinatuan garatuak izan daitezkeen ekintzak jasotzen ditu Planak, modu honetan eraginkortasuna eta ikuspegi integrala indartuz.

Ekintza plana beraz, helburu estrategikoka banatuta dago. Sarri elkarlotuta egon arren helburu bakoitzari erantzuten dien neurri eta ekintzak proposatu direlarik. Helburu estrategiko bakoitza kolore bateko taula batean jaso da. Taulan hurrengo informazioa jasotzen dira:

- Helburu zehatza: helburu estrategikoari erantzuten dion azpi-helburu konkretua zehaztuz.
- Neurri edo ekintzak: Helburu zehatz horri erantzuteko proposatzen diren neurri eta ekintzak.
- Eragileak: Neurri edo ekintza hori aurrera eramaten haien parte hartzea bilatzea edo kontuan hartzea komeniko litzatekeen eragileak² azaltzen dira, batzuk udal mailakoak dira eta beste batzuk herri edo bailara mailako eragileak.
- Baliabideak: Neurri hori aurrera eramateko aurreikusten diren beharrezko baliabideak, izan baliabide pertsonalak, zein ekonomikoak.
- Tenporalizazioa: Neurri hori martxan jartzea aurreikusten den epea, batzuk bere izaera dela eta zeharkakoak dira, beste batzuk denboran mugatuak.

² Plana Udalak bultzatu duen heinean Udala, eta bertan aipatzen den sail konkretua, izango da ekintza edo neurriaren bultzatzaile nagusia, hala ere, beste eragileak ere kontuan hartzea garrantzitsua ikusten denez hauek zehaztea erabaki da. Aipatzea ere, eragileen artean parte-hartze maila ezberdinak egon daitezkeela haien nahi eta gaitasunaren arabera: elkar-lanetik hasi, laguntza puntualera edota parte-hartze hutsera.

Aipatzekoa da ere, taula hauetan azaltzen ez badira ere, hurrengo atalean, beste taula batean neurri eta ekintza bakoitzaren adierazleak jaso direla, bakoitza bere neurriaren zenbakiaren bitartez lotuta.

4.1. ZAINTZA BERE DIMENTSION OSOAN ULERTZEA, LAN HAUEK MEREZI DUTEN AITORTZA EGIN ETA IKUSTARAZTEA

Zaintzarena oso gai konplexua eta erpin askokoa da, izan ere, zaintza lanak oso zabalak dira, biziklo osoa hartzen dute, bizitzan zehar intentsitate eta forma ezberdinak hartu arren. Horregatik, ezinbestekoa da mendekotasunaren ikuspegitik ikuspegia zabaltzea.

Zaintza lanak pertsonen **behar fisiko, psikologiko, sozial eta emozionalak** bermatzeko egiten diren askotariko lan edo jarduerak dira. Lan eta jarduera hauek, beraz, oso zabalak dira eta era askotako jarduerak barne hartzen ditu, izan, zaintza zuzenak ongizate fisiko, psikologiko, sozial edo emozionala bermatzeko, baita horiek posible egiteko aurrebaldintzak bermatzen dituzten jarduerak edo kudeaketa mentala ere.

Pertsonak **zaugarriak eta interdependenteak** (elkarren arteko mendekoak) gara. Horregatik, autonomiaren mitoaren aurrean, gure zaugarritasuna eta interdependentzia onartu eta honen arabera gizarte antolakuntza bat behar dugu.

Pertsona guztiok, gure bizitza osoan zehar (intentsitate ezberdinean bada ere) dauzkagu zaintza behar batzuk, gure kasa erantzuteko gaitasuna, momentu eta egoeraren arabera, aldakorra izan daitekeelarik. Beraz, **guztiok ditugu asetu beharreko zaintza beharrak**, baita zaintza horiek modu duinetan jasotzeko eskubidea ere, edozein delarik gure egoera ekonomiko edo harreman sarea. Aldi berean, **zaintzak emateko gaitasuna** denok badugu ere (egoeraren arabera aldakorra izan daitekeena), ardura hau ez da modu orekatu batean banatua izan.

Garrantzitsua da, zaintza lanez ari garenean, zaugarri eta interdependenteak (elkarren mendekoak) garenaren baieztapenetik abiatuta, **zaintzekiko eta zaintza lanekiko dagoen ikuspegia zabaltzea**; zaintzak bere dimentsio osoan ulertu eta lan hauen beharrezkotasuna aldarrikatzea, zaintzekiko eta zaintza lanekiko dagoen ikuspegia eta kultura eraldatzen hasteko ezinbestekoa baita.

Hortik abiatuta, zaintzek eta zaintza lanek oraindik **ere ikusezin eta merezi duen aitortza sozialik gabe** jarraitzen dute. Horren atzetik, orain arte (eta oraindik ere), lan hauek feminizatutako lanak izan direla dago; emakumeen ardurapean garatu diren lanak izan dira, ia soilik espazio pribatuan (etxeetan) eman direnak eta soldatarik gabe egindakoak.

Emakumeak, modu orokortuan lan (ordainduen) munduan sartu ahala, etxeetan egiten zituzten lan asko egiteari utzi zioten, etxeetan asetzen ziren **behar asko ase gabe** geldituz. Horren

aurrean, etxe askok hartutako estrategia, administrazio publikoak eskaintako zaintza zerbitzu eskasaren aurrean, **zaintza lan horietako batzuk merkatuaren bidez asetzea** izan da. Hau da, zaintza lan horiek erostea, merkantilizatzea. Honek, aldi berean, emakume askorentzat lan eremu bat ireki du, merkantilizatutako zaintza behar horiek asetuz. Hala ere, lan horiek ordura arte emakumeek eta dohainik egiten zituztenez, merkantilizatutako lanak bihurtzerako salto egitean ere, aitortza sozial eta ekonomiko eskasa izaten jarraitu dute (merkantilizatutako **zaintzaren sektorea sektore prekarizatu** bihurtuz).

Sektore prekarizatu izate horrek lotura zuzena du bertan lanean dihardutenen ezaugarriekin; ia soilik emakumeak izateaz gainera, klase baxukoak dira eta migratutakoak. Abiapuntu da zaintza eta zaintza lanen egungo antolamendua guztiz bidegabea dela. Gainera, ez ditu egun dauden zaintza beharrak asetzen. Beraz, agerikoa da bestelako antolamendu bat sortzeko beharra dagoela; **behar guztiak asetuko dituen, justizia sozialean oinarrituko den antolaketa** baten bitartez.

Ezinbestean heldu behar diegu, besteak beste:

- Bizi itxaropena geroz eta luzeagoa denez, mendekotasuna duten pertsonen kopuruak gorakada egiten jarraitzen duelako (piramidearen aurreikuspena)
- Familia eredu berriek (kide gutxiagoz osaturikoak, deszendentziarik gabekoak, elkarrengandik urrun bizi direnak), gurea bezalako sistema familista batean kinka larrian jartzen dutelako. Beraz, ikusten delako familiak ez duela “erresolbitzen” gizarteak dituen eta, izango dituen, zaintza beharrak asetzeko gaitasunik izango.

Nahitaez beste zaintza antolaketa bat pentsatu eta sustatzea **urgentziak**o zerbait da gaur egun jada **kolapsatua** dagoen sistema honi irtenbidea emateko, alde batetik, ez direlako zainduak izateko eskubideak bermatzen, eta bestetik, ez direlako zaintza hauek justizia sozialean oinarritutako baldintzetan emateko oinarriak existitzen. Honen aurrean ikuspegi komunitarioak ere berebiziko garrantzia izango du; ezinbestekoa izango da komunitatea, modu batean edo bestean, mobilizatu eta antolatzea. Hau da, ongizate estatuaz harago doazen ereduez kolektiboki pentsatu behar ditugu, imaginatu, sistema kapitalista heteropatriarkal eta kolonialistari aurre eginez, zaintza bizitza erdigunean jarriko duen sistema sozial baten ardatz gisa kokatuz.

Politikak abiatzerako momentuan, ongizate estatu deituriko horren mekanismoak erabil daitezke, betiere **planteamendu merkantilistetatik aldenduz, enpresek zaintza-sistema prekarizatu batetik etekina ateratzea saihestuz eta logika publiko-komunitario baten alde**

eginez. Ildo horretan, zaintza-politikak itsasargi izan behar dira, eraiki nahi dugun jendarte eredurako trantsizioa ahalbidetze aldera. Egoera konkretuetan zaintzarako eskubidea bermatzeko berariazko politikak sustatuko dituzte, eta, aldi berean, gainerako politikak norabide horretara aldatzeko bultzada izango dira.

Proposamen posibilibata baten aldeko apustua egin nahi izan bada ere, une honetan ez da posible dagoena deuseztatzea; trantsizio bat beharrezkoa da. Ereduaren erabateko aldaketa bilatzen bada ere, proposamen zabalak eginez gero, arriskua orokortasun horretan galtzekoa da, egungo sisteman hobetzeko tarte handia dagoela ahaztuz. Tarte hori zein den erakusten digute etxeko langileen, egoitzetako eta etxez etxeko langileen, eta abarren borroketako eskakizunek. Apustu honek ere galdera bihurtzen dira: dagoena hobetzea eta dagoena eraldatzea, bateragarriak al dira? egungo zaintza-eredua zein den definitzeaz gain, dagoeneko badiren borrokei erantzungo dieten eskaera zehatzak adosterik badago? Nola uztartuko ditugu bi dimentsio hauek?

Uztartze saiakeraren emaitza dira lehen helburu estrategiko hau lortze aldera diseinatu diren ekintzak:

1. ZAINZA BERE DIMENTSIO OSOAN ULERTZEA, LAN HAUEK MEREZI DUTEN AITORTZA EGIN ETA IKUSTARAZTEA

HELBURU ZEHATZA	ZBKIA	EKINTZA	ERAGILEAK	BALIABIDEAK	TENPORALIZ AZIOA
Zaintza lanak ikusarazi eta merezi duten aitortza egitea	1	Zaintza lanak ikusarazi eta aitortza egiteko hitzaldiak, tailerrak edota kanpinak antolatu (hauek besteak beste, Jabekuntza Eskolatik bideratzen diren programazioaz baliatuz egin liteke). Hemen lantzeko zenbait ideia: - Zaintza familiaratik atera eta komunitatera pasatzeko beharra - Egun zaintza lanetan dauden arrakala ikusaraztea eta aurre egitea: genero, adin, klase edota arraza arrakala. -Zaintza lanen gogortasuna (fisikoki, psikologikoki...) Hauek beste eragileekin elkarlanean egitea bultzatu, arrakasta gehiago izan dezaten. Bergarako III. Berdintasun Planeko G.E.02 ekintzari jarraiki.	Berdintasun saila Mugimendu feminista Ehundu	Berdintasun teknikariaren lan-orduak Baliabide ekonomikoak Herritar antolatuen elkarlanerako prestutasuna	zeharkakoa
Zaintza lanak ikusarazi eta merezi duten aitortza egitea	2	Zaintzari lotutako egun esanguratsu edo aldarrikapen egunak identifikatu eta gaia gizarteratzeko aprobetxatu, edota helburu hori izango duten ekimen espezifikoa antolatu (esaterako, zaintzaren astea Bergaran).	Berdintasun saila Mugimendu feminista Ehundu	Berdintasun teknikariaren lan-orduak Baliabide ekonomikoak Herritar antolatuen elkarlanerako prestutasuna	2023
Dibertsitate funtzionala duten herritarrak, euren errealitate eta beharrak ikusaraztea, eskubide berdintasuna aldarrikatuz	3	Egun esanguratsu edo aldarrikapen egunak identifikatu eta dibertsitate funtzionala dutenen elkarte edo eragileekin batera egun hori ospatu edo aldarrikatzeko ekintzak egin.	Berdintasun saila Dibertsitate funtzionalaren inguruko elkarteak	Berdintasun teknikariaren lan-orduak Baliabide ekonomikoak Babes politikoa Herritar antolatuen elkarlanerako prestutasuna	zeharkakoa

<p>Hezkuntza (formal eta ez-formal) eta aisialdiak helburu zaintzailea ere baduela ikusaraztea, beti ere funtzio horren balioa aldarrikatuz</p>	<p>4</p>	<p>Hezkuntza eta aisialdia ere zaintza badela ikusarazi eta balioa eman, herri hezitzailearen filosofiaren oinarri.</p>	<p>Gazteria Jardun Berdintasun saila Herri Hezitzailea</p>	<p>Berdintasun teknikariaren lan-orduak Beste udal teknikarien lan-orduak Beste erakundeen elkarlanerako prestutasuna</p>	<p>2024</p>
<p>Zaintzen inguruko formakuntza eragileekin elkarlana eta aliantzak bultzatzea</p>	<p>5</p>	<p>Mariaren Lagundiko Lanbide Heziketa zikloarekin elkarlana bilatuko da, bereziki zaintzari lotutako ikasketekin (menpekotasuneko modulua, gizarte integraziokoa...) hartu-emana bultzatzea honako helburuekin:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zaintzari lotutako tokiko eragile formatzaile moduan (kapazitazioari lotuta) - Kurrikulumari lotuta, zainketaz ari garenean, ze begiradatik zaindu nahi denaren inguruan hausnartu eta eragiteko. - Ikasketa aukera profesional moduan balioa emateko eta zaintzaren auzi honetan eragile aktibo bilakatzeko aukera baloratzeko. - Gizartearen sentsibilizazioan eta lan-baldintzen hobekuntzaren alde eragile aktibo moduan aliantzak bultzatzeko. - Bertako ikasleen etorkizunari begira bultzatu daitekeen bitartekaritza bideak arakatzeko. 	<p>Berdintasun saila Gizarte zerbitzuak Mariaren Lagundia</p>	<p>Berdintasun teknikariaren lan-orduak Gizarte langilearen lan-orduak Beste erakundeen elkarlanerako prestutasuna</p>	<p>2023</p>

<p>Sentsibilizazioa lantzeko tresnak sortu eta hauek zabalkundea ematea</p>	<p>6</p>	<p>Gai honen inguruko sentsibilizaziorako unitate didaktikoak sortzearen aukera aztertu. Gaiak zuzenean eragiten ez diola uste duen jendearen interesa lortzeko, eta behar kolektiboa den heinean, zaintza lanak benetan erdigunean jartzeko. Unitate hauek ez dute zertan soilik hezkuntza baliabideetara bideratuta egon behar. Lehen urratsa hau egiteko bideak aztertzea izango da: finantzazioaren bilaketa, beste erakundeen partaidetza eta inplikazioa...</p>	<p>Berdintasun saila Hezkuntza saila</p>	<p>Berdintasun teknikariaren lan-orduak Beste udal teknikarien lan-orduak Baliabide ekonomikoak</p>	<p>2025-2026</p>
--	-----------------	---	--	---	------------------

4.2. ZAINZAREN KULTURA ERALDATU ETA HAUEK MODU JUSTUAGO BATEAN BANATZEA

Orain arteko zaintza lanen ardura, **lanaren banaketa sexuala** oinarri, oraindik ere nagusiki emakumeen gain jarraitzen dute, izan etxeetan eta baita lan-merkatuan ere. Zaintzaren kultura, ezaugarri biologizistetan oinarritzen dena, indarkeria kultural moduan identifikatzea klabea da, sarritan bestelako indarkeria estruktural, zeharkako edo zuzenak justifikatzen dituelako. Baina genero ezberdintasunaz gainera, adin, klase, arraza eta jatorri ezberdintasunek ere zeharkatzen dute, interseksionalitatearen fenomenoak indartuz.

Zaintza lanen banaketa bidegabearen aurrean, gaur egun nagusi den **zaintza kulturak dakarren injustizia eta indarkeriari** dagokionez ikuspegi aldaketa eta bestelako kultura bat sustatzea ezinbestekoa da. Batetik, zaintza lanak modu justuagoan banatu eta antolatu, egiturazko zapalkuntzak (genero, jatorri, klase edo adina) kontuan izan eta gaindituz. Bestetik, oraindik nagusitzen diren **ideiak zalantzan jarri eta bestelako kultura bat sustatu** behar da, besteak beste, zaintzaren inguruan esentzialismoan oinarritutako balore eta ideiak birpentsatuz. Hala nola: etxean eta familian zaintzea dela aukera on bakarra edota zaintza onena maitasunez egiten dena dela.

Gizartean horren errotuta dauden ideia hauen ondorioz emakumeek haien senitartekoak zaintzeko (eta era konkretu batean zaintzeko) betebeharra sentitzen dute. Sarri beren bizia immolatuz: jardunaldi bikoitz edo hirukoitzak eginez, horrek dakarren denboraren prekarizazio eta osasunean (fisiko, zein psikologikoan) kalte larriekin. Gainera, betebeharrak horri gizarteak espero duen bezala erantzun ezin diotenean sentitzen duten errua ere handia izan ohi da.

Zaintzaren inguruan oso hedatuta dagoen beste ideia edo ustetako bat emakumeek hobeto zaintzen dutenarena da, eta zaintza lanetan aritzeko ez dela ikasketa beharrik, berez emakumeek dakiten zerbait baita. Hau da, emakumeak emakume izateagatik berez egiten dakiten jarduerak gisa kontsideratuak izan dira zaintza lanak, eta beraz, kualifikaziorik behar ez duten lan gisa. Ideia honen kontra, lan hauen naturalizaziotik aldendu eta profesionalizazioa onartzea ezinbestekoa da, hau da, lan hauek egiteko ezagutza eta gaitasunak ikasi eta hartu egiten direla. Are gehiago pertsonen bizitza eta osasunaren birsorkuntzarako lanak direla aintzat hartzen badugu.

Helburu estrategiko honek aipatzen duen zaintzaren kultura eraldatzen hasteko eta, hala, modu justuago batean banatzen hasteko Plan honetan hainbat ekintza eta neurri jasotzen dira.

Bereziki kontzientziario eta sentsibilizazio neurriak dira, gaiaren inguruko hausnarketa eta kuestionamendua bultzatzea bilatzen dutenak.

2. ZAINZAREN KULTURA ERALDATU ETA HAUEK MODU JUSTOAGO BATEAN BANATZEA

HELBURU ZEHATZA	ZBKIA	EKINTZA	ERAGILEAK	BALIABIDEAK	TENPORALIZAZIOA
Gizonek zaintzarekiko duten ardura bere gain hartu dezaten bultzatzea	7	Gizonek zaintza lan ez-profesioaletan duten ardura hartzeko kanpaina, hitzaldi edo tailerrak bultzatzea. Bergarako III. Berdintasun Planeko G.E.04 ekintzari jarraiki.	Berdintasun saila	Berdintasun teknikariaren lan-orduak Baliabide ekonomikoak	zeharkakoa
Gizonek zaintzarekiko duten ardura bere gain hartu dezaten bultzatzea	8	Zaintza lan profesioaletan ere gizon gehiago izateko neurriak sustatu. Hau LHko zentroarekin elkarlanean.	Mariaren Lagundia	Berdintasun teknikariaren lan-orduak Beste erakundeen elkarlanerako prestutasuna	zeharkakoa
Egun bizi dugun zaintza sistemak sortzen dituen injustizia egoerak ikusarazi eta kontzientzia hartzea	9	Herritar autoktonoak, bizi dugun zaintza sistemak sortzen dituen injustizia egoeren (zaintza kate globala, esaterako) gainean kontzientzia eta ardura hartzerako ekimenak antolatzea. Hau herriko mugimendu feminista edo mugimendu anti-arrazistarekin elkarlanean egitea bilatu.	Mugimendu feminista Mugimendu anti-arrazista	Berdintasun teknikariaren lan-orduak Baliabide ekonomikoak Herritar antolatuen elkarlanerako prestutasuna	zeharkakoa

<p>Hurrek ere zaintzaile izateko duten gaitasunaz kontziente izatea</p>	<p>10</p>	<p>Hurrek ere, zaintzaile izateko duten gaitasunaren kontzientzia hartu dezaten ekimenak antolatu. Bide batez, etorkizunari begira ere, zaintza lanekiko duten ardura bereganatu dezaten</p>	<p>Berdintasun saila Hezkuntza mahaia</p>	<p>Beste udal teknikarien lan-orduak Beste erakundeen elkarlanerako prestutasuna</p>	<p>2024</p>
<p>Zaintza lanei erantzuteko komunitateak duen oinarrizko papera abiapuntu, hau posible egiteko baldintzak jartzea.</p>	<p>11</p>	<p>Ikuspegi komunitarioa duen zaintza aktibatzeari begira behar diren baldintzak identifikatu eta martxan jartzea. Ondoren, herritarrak bide honetan inplikatzeko estrategiak pentsatu.</p>	<p>Berdintasun saila Ehundu</p>	<p>Berdintasun teknikariaren lan-orduak Bestelako udal baliabide publikoak (azpiegiturak, zerbitzuak)</p>	<p>2025-2026</p>
<p>Menpekotasun egoeran dauden herritarrentzat herrian existitzen diren baliabideen estigmatorekin deuseztatzea, eskaintzen den zerbitzuaren ezagutzaren bitartez, balorazioa hobetu eta etorkizunari begirako aukera moduan kontutan hartuak izan daitezten.</p>	<p>12</p>	<p>Ate irekien jardunaldiak antolatu Bergarako egoitza, eguneko zentroak edota etxe tutelatuetan. Jardunaldi hauek adinekoen elkarte edo taldeekin (San Joxepe, Nagusilan edo beste) elkarlanean antolatu, bereziki haien erritmo, egiteko moduak kontuan izateko eta kolektibo horretara errazago iristeko. Deialdia egiterako orduan tele-alarma zerbitzuaz baliatzea ere interesgarria izan daiteke.</p>	<p>Gizarte zerbitzuak Ehundu Mugimendu feminista</p>	<p>Gizarte langilearen lan-orduak Bestelako udal baliabide publikoak (azpiegiturak, zerbitzuak)</p>	<p>2023</p>

4.3. ZAINZA LANETAN DIHARDUTEN LANGILE PROFESIOALEN LAN- ETA BIZI-BALDINTZAK HOBETZEA

Orain arte, etxeetan emakumeek musutruk eta isilean egin dituzten lan hauek merkatura salto egin dutenean, **prekarizazio baldintzetan** egin dute: ordutegi luzeak eta bitzta pertsonalarekin uztartzeko zailak (edo ezinezkoak), soldata baxuak, lan-karga eta lan intentsitate altuak (fisikoki zein psikologikoki oso exijenteak), normalean ezegonkortasun handikoak lan-baldintzak, indarkeria egoerak eta, guztiak, apenas aitortza sozialik gabe.

Zaintza-sektoreko langileen artean **egoera eta errealitate oso anitzak** badira ere (barneko etxeko langileen egoera da ezberrik gabe guztietan prekarizatu eta lazarriena), zaintza sektoreko langile guztien lan eta bizi baldintzak hobetzea da premiazkoa; izan zerbitzuetako langileenak, izan etxeetan era pribatuan lanean ari diren langileenak.

Premiazkoa izan arren, jakitun gara Udal Plan honek gai honetan eragiteko gaitasuna mugatua dela, izan zenbait ardua bere eskumenekoak ez direlako edo, izan etxe pribatuetan eragiteko gaitasuna txikia delako edota irismenik ez duelako: Baina bereziki, zailtasunik handiena arazoaren izaera estrukturala da. Hala ere, bere larritasuna dela eta, garrantzitsua da sektore honetako langileen bizi- eta lan-baldintzak hobetzen lagun dezaketen neurri eta ekintzak garatzea. Horregatik, Plan honetan Udal eskumenen barruan, sektore honetako langileen lan- edota bizi-baldintzak hobetzen lagun dezaketen hainbat neurri proposatzen dira.

3. ZAINITZA LANETAN DIHARDUTEN LANGILE PROFESIOALEN LAN ETA BIZI BALDINTZAK HOBETZEA

HELBURU ZEHATZA	ZBKIA	EKINTZA	ERAGILEAK	BALIABIDEAK	TENPORALIZAZIOA
Zaintzaileek zerbitzu espezializatuagoa eman dezaten baldintza eta baliabide egokiak eskaintzea, beren beharretara egokituak	13	Baliabideak eskaini zaintzaile profesional hauek ikastaroa egin ahal izan dezaten. Honetarako aukera ezberdinak esploratu: - ELZak ordezkapenak egiteko aukera esploratu (Udalak bere gain hartuta, familiak bere gain hartuz edo erdibideko zerbitzuak) - Eguneko zentro arinaz baliatzeko aukera esploratu, erabiltzaileak bertan elkartuz (zerbitzua hauentzako zabalduz edo boluntario sare baten bitartez)	Gizarte zerbitzuak	Gizarte langilearen lan-orduak Baliabide ekonomikoak Babes politikoa	2023
Zaintzaileek zerbitzu espezializatuagoa eman dezaten baldintza eta baliabide egokiak eskaintzea, beren beharretara egokituak	14	Zaintza lanetan diharduten pertsona profesionalentzako euskara ikastaroak bultzatzea, haien behar eta errealiterara egokituta (maila, ordutegiak, edukia...) - Udal euskaltegiak baliatzeko aukera	Euskara saila Udal euskaltegia	Gizarte langilearen lan-orduak Bestelako udal baliabide publikoak (azpiegiturak, zerbitzuak)	2024
Zaintzaile eta zaintza beharrak dituztenen arteko hartu-eman erraztuko duen sistema bat antolatzea, lan-baldintza justuetan oinarritua dena	15	Bergaran zaintzaileen lan-poltsa bat eratzeko aukera aztertu: Lehenik eta behin, aztertu Lanbidek zein erantzun eman ahal dion behar honi eta Udalak asumitu dezakeen konpetentzia noraino doan. Bestetik, beste herrietako ereduak ezagutzea (kudeaketa eta ardurari lotutako zalantzak argitzeko) eta Bergaran horrelako zerbitzuak egiteko aukera aztertu. Horrelako zerbitzuak egiteko aukera egon ezker irizpideak eta funtzionamendua landu. Baita lan-poltsa honen bidez lan-baldintzetan eragiteko aukera ere. Lan-poltsa hau adinekoen zaintza langileentzat ez ezik, dibertsitate funtzionala duten pertsonen eta haurren zaintza langileentzat ere izatea.	Berdintasun saila Garapen saioa (Marije) Lanbideko (Olaia)	Berdintasun teknikariaren lan-orduak Beste erakundeen elkarlanerako prestutasuna	zeharkakoa
Udala eta udalaren eskumena den ELZan lanean ari direnen hartu-eman bultzatzea, beharrak identifikatu eta, ahal den neurrian, erantzunak adosteko	16	Gizarte zerbitzuen eta ELZko langileen arteko hartu-eman hobetze aldera, hauen arteko koordinazio espazioa definitu eta finkatzea, espazio honen helburu eta mugak argi izanik. Koordinazio espazio hau egonkortu eta sistematizatu.	Gizarte zerbitzuak ELZko langileak	Gizarte langilearen lan-orduak Herritar antolatuen elkarlanerako prestutasuna	zeharkakoa

<p>Zaintza lanetan ari direnen izaera kolektiboa bultzatzea</p>	<p>17</p>	<p>Zaintzaile profesionalen saretzea bultzatzea, izaera kolektiboa landuz eta topatzeko espazioak bilatuz:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lan-eskubideen defentsan elkartasunez joka dezaten laguntzeko - Elkarri babesa emateko eta informazio eta baliabideak elkar-partekatzeko <p>Etorkizunari begira, Emakumeen Etxearen prozesu eta proiektuarekin uztartu, baita aholkularitza zerbitzuaren balorazioarekin ere. Emakume Etxearen proiektua sortu bitartean hau bultzatzeko dinamikak ere sustatu (adibidez, Jabekuntza eskolaren bitartez).</p>	<p>Berdintasun saila Gizarte zerbitzuak</p>	<p>Berdintasun teknikariaren lan-orduak Gizarte langilearen lan-orduak Bestelako udal baliabide publikoak (azpiegiturak, zerbitzuak) Herritar antolatuen elkarlanerako prestutasuna</p>	<p>2023</p>
<p>Zaintzaren sektoreko lan-baldintzak hobetzea</p>	<p>18</p>	<p>Era pribatuan zaintza lanetan dihardutenei AHOLKULARITZA INTEGRALA emateko aukerak aztertu. Honako baloratu beharko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zuzenean zerbitzua ematea den helburua edo, beste zerbitzu espezializatu batera bideratzea izango den. - Zerbitzuaren intentsitatea zein izan behar den, baliabide eta eskaera kontutan izanik. <p>Aholkularitza hau ahalik eta osoena izatea bilatu. Besteak beste, behar hauei erantzun beharko zaie:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kontratatzaileari begira, lan-kontratua egiten lagundu eta lan-baldintza duinak eskaintzea exijitu (soldata, ordutegiak, deskantsuak, lan-motak, etxeko baldintzak...) - Langileari begira: dituzten eskubideak ezagutu eta betearazteko tresna izatea, babesa eman eta ahaldundu... <p>Aholkularitza zerbitzu hau adinekoen zaintza lanetarako ez ezik, dibertsitate funtzionala duten pertsonen eta haurren zaintza lanetara ere zabaldu. Bergarako III. Berdintasun Planeko G.E.03 ekintzari jarraiki.</p>	<p>Berdintasun saila Ehundu</p>	<p>Berdintasun teknikariaren lan-orduak Bestelako udal baliabide publikoak (azpiegiturak, zerbitzuak)</p>	<p>2023</p>
<p>Zaintzaren sektoreko lan-baldintzak hobetzea</p>	<p>19</p>	<p>Udalak eskaintzen dituen zaintza zerbitzuetako langileen lan-baldintzen estandarrak hobetzeko neurriak hartu; aztertu, esaterako, ELZ kontratatzeko lizitazioaren bitartez langileen lan-baldintzak hobetu daitezkeen. Aldi berean, lan-baldintzak hobetzeko helburuz, zerbitzu hau kooperatibizatzearen aukera aztertu.</p>	<p>Gizarte zerbitzuak Kontuhartzaitza</p>	<p>Gizarte langilearen lan-orduak Beste udal teknikarien lan-orduak Baliabide ekonomikoak Babes politikoa</p>	<p>2025-2026</p>

<p>Zaintzaren sektoreko lan-baldintzak hobetzea</p>	<p>20</p>	<p>Zaintza-sektoreko lan-baldintzak hobetzeko exijitzeko herrian egon daitezkeen ekimen edo aldarrikapenak babestu horiek aurrera eramaten ari direnen ekimenak babestuz, eta ahal den neurrian lagunduz.</p>	<p>Berdintasun saila Ehundu MF</p>	<p>Berdintasun teknikariaren lan-orduak Bestelako udal baliabide publikoak (azpiegiturak, zerbitzuak) Babes politikoa Herritar antolatuen elkarlanerako prestutasuna</p>	<p>zeharkakoa</p>
<p>Zaintzaren sektoreko lan-baldintzak hobetzea</p>	<p>21</p>	<p>Bereziki espazio pribatuan ematen diren eraso matxisten aurrean erantzuteko protokoloa diseinatu eta martxan jarri. ELZan eman daitezkeen indarkeria kasuei aurre egiteko protokoloa txukundu eta onartu.</p>	<p>Berdintasun saila Gizarte zerbitzuak</p>	<p>Berdintasun teknikariaren lan-orduak Gizarte langilearen lan-orduak</p>	<p>2023</p>

4.4. ZAINZA LANAK FAMILIAN EMATEN DITUZTEN ZAINZAILEAK ZAINDU ETA BALDINTZAK HOBETZEA

Zaintza sistema **familista** honetan zaintzaren ardura nagusia familien (bereziki familiako emakumeen) gain dago. Zaintza behar asko eta asko familian asetzen dira egun, familiako kideek zaintza lan horiek **zuzenean bere gain** hartuz edota, daukaten baliabideen arabera, hauetako batzuk **bideratuz** (nahiz eta ardura eta kudeaketa haien gain hartu).

Aldi berean, administrazio publikoek eskaintzen dituzten zerbitzuek asetu gabe uzten dituzten beharren erantzule ere badira familiak, askotariko estrategiak baliatuz: gaitasun ekonomikoak dutenek behar hauek merkatuan asetzen dituzte (zaintza lan horiek erosiz), gaitasun ekonomikorik ez dutenek, nola edo hala, bere gain hartuz.

Sistema familista honek, injustizia egoerak dakartzan heinean (eta zenbaitetan ere, zaintzak duinak ez jasotzea), **bestelako eredu batera igarotzea** ezinbestekoa da, nahiz eta jakitun izan gaur-gaurkoz eredu aldaketa hori oraindik urrun dagoela. Bitartean, premiazkoa da zaintzak familian ematen dituzten pertsonen egoera hobetzeko neurriak hartzea.

Neurri horien artean haien **lan-karga arintzen lagunduko duten zerbitzu eta baliabideak** handitzea beharrezkoa da (egoera ekonomikoak eta harreman sareak baldintza izan gabe), izan zerbitzu publikoetan bitartez edota familiako beste kide edo komunitatean lanak banatuz.

Kapitalaren metaketa, produkzioa, erdigunean jartzen duen sistema honek ez ditu zaintza lanak lehenesten eta, ondorioz, leku eta denbora gutxi dago zaintzarako edota komunitateari eskaintzeko. Bide horretatik **kontziliazio-neurriak hobetu eta zabaltea** ere beharrezkoa da; lana eta bizitza pertsonala uztartzeko aukerak zabaltea, norberaren denbora edo besteen zaintzarako denbora gehiago izateko. Besteen zaintzarako bideratutako kontziliazio-neurri hauek odoleko familiaz gaindiko bestelako pertsona batzuen zaintzarako ere erabili ahal izatea ezinbestekoa litzateke eredu familistatik atera eta bestelako eredu komunitarioago baterantz urratsak emateko.

Gainera, zaintzaren kulturaren presioa ere nabarmena da familiako zaintzaileen artean: betebeharraren zama, erruduntasuna edota bakardade sentimenduak oso ohikoak dira. Beraz, **zaintzaile hauek zaintzea** ere ezinbestekoa da.

Aldi beran, **zaintza lanen inguruan dauden ideia esentzialisten kontra**, zeinak maitasunez egiten den zaintza onena den eta espezializatorik behar ez duen, familiako zaintzaileek ere

zaintzen ikasteko beharra daukate. Izan ere, zaintza beharrak dituzten pertsonaren beharren arabera zaintza lanak oso espezializatuak ere izan daitezke, edo beharrak eraldatzen joan daitezke, eta beraz, zaintza hauek nola eman ikastea oso garrantzitsua. Errealitate anitzei erantzun espezializatua eman ahal izateko, ezaugarri espezifikoak kontutan hartu behar dira, ez baita berdina aniztasun funtzionala duen nerabe baten zaintza edo alzheimerak jota dagoen gurasoaren zaintza, esaterako.

Gainera, etxe eta familietan zaintza lan hauek **ez dira modu parekidean banatzen**: oraindik ere emakumeak dira nagusiki familian lan hauen ardura hartzen dutenak (bai zaintza hauek modu zuzenean ematea, baita hauek bideratu eta adi egoteko ardura ere). Hau modu justuago batean banatzea behar-beharrezkoa da.

4. ZAINZA LANAK FAMILIAN EMATEN DITUZTEN ZAINZAILEAK ZAINDU ETA BALDINTZAK HOBETZEA

HELBURU ZEHATZA	ZBKIA	EKINTZA	ERAGILEAK	BALIABIDEAK	TENPORALIZAZIOA
Zaintzaileak zaintzea	22	<p>SENDIAN programari dagokionez:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Programaren malgutasuna bultzatu: zaintzaile nagusiaz gain, beste zaintzaileek ere programaz baliatzeko aukera izan dezaten. - Programa honen gainean dagoen estigma landu. <p>Identifikatzen diren beharren inguruko hausnarketa GFARI trasladatzea.</p>	Gizarte zerbitzuak Berdintasun saila	<p>Berdintasun teknikariaren lan-orduak</p> <p>Gizarte langilearen lan-orduak</p> <p>Beste erakundeen elkarlanerako prestutasuna</p>	2023
Zaintzaileak zaintzea	23	<p>Dibertsitate funtzionala dutenen zaintzan ari diren familiarren beharrak identifikatu eta espreski, behar horiei erantzungo dieten estrategiak diseinatu eta martxan jartzea.</p> <p>Zuzenean administrazioak ezin badu bere gain hartu, elkardez baliatzea eta hauei baliabideak eskaintzea (finantzazioa).</p>	Gizarte zerbitzuak Dibertsitate funtzionalari lotutako elkarteak	<p>Gizarte langilearen lan-orduak</p> <p>Herritar antolatuen elkarlanerako prestutasuna</p>	2024

<p>Zaintzaileak zaintzea</p>	<p>24</p>	<p>Baliabide berriak sortzeko, existitzen direnak moldatzeko, beste herrietako esperientziak erreplikatzeko aukerara irekia egotea, sormena landuz eta ausardiaz.</p> <p>Kontutan izan zaintzaile guztiek ez dutela zaintza behar berdina; ez da berdina gurasoak edo seme-alabak zaintzea, esaterako. Gainera, atentzio berezia jarri behar da zaintza beharrak dituzten zaintzaileen errealitatearen gainean.</p>	<p>Gizarte zerbitzuak Ehundu</p>	<p>Gizarte langilearen lan-orduak Bestelako udal baliabide publikoak (azpiegiturak, zerbitzuak)</p>	<p>2024</p>
-------------------------------------	------------------	---	--------------------------------------	---	-------------

4.5. ZAINZA MODU DUINEAN JASOTZEKO ESKUBIDEA SUSTATZEA

Zaintza lana emateko betebeharra unibertsal moduan ulertzen dugu, baita zaintza lan horiek justizia sozialean oinarrituta ematea ere. Baina ezin dugu ahaztu zaintza duinak jasotzea ere eskubidea ere badela. Hortaz, bizitza bera eta, bizi hori iraunarazteko zaintzak, erdigunean jartzea ere oinarritzkoa da.

Horretarako, bizitza kapitalaren zerbitzura jartzen duen logikarekin hautsi behar da eta, hortik, bizitza birkokatu eta guztiontzako bizitza bizigarriak izateko helburua duen gizarte antolaketa bat eraiki, izaki guztion behar fisiko, psikologiko, emozional eta sozialak asetzeko. Hau da, ongizatea bere osotasunean ulertzea, alegia.

Zaintza espezifikoak jasotzen dituen pertsona subjektu pasibo bihurtzeko joeraren aurrean, ezinbestekoa da **pertsonetan oinarritutako zaintzaren ikuspegia** txertatzea, ikuspegi ahalgabetzailea gaindituz, autonomia pertsonala sustatuz eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen bizi-kalitatea hobetuz. Baina horretarako elkarrekiko zaintzaren kultura indartu beharra dago, berezko dugun zaugarritasuna eta interdependentzia aitortuz, autonomia sustatuko duten programak sustatuz (zahartze aktiboa, esaterako) edota autonomia luzaroan mantentzeko baliabideak eskainiz.

Aldi berean, **bizitzen aniztasuna** (ez hegemonizatzea) **eta zaintza-harremanen dibertsitatea** ere aitortzea ezinbestekoa da. Administrazio publikoen moteltasun eta zurruntasunaren aurrean sortzen diren zailtasun burokratikoak gainditzeko moduak pentsatu behar dira; besteak beste, **pertsonan oinarritutako arreta integralerako** bideak aztertuz. Paradigma aldaketa honek, zaintzari eta zainduari begiratzeko modu berriak eskatzen ditu.

Aipatutako aniztasun horretatik, bai zaintza behar espezifikoak eta anitzak dituzten kolektibo zaugarriei dagokionez, baita zaintza-harremanei dagokionean egon ahal dibertsitateari dagokionez ere, pertsonetan oinarritutako arreta integralaren ikuspegitik, kolektibo hauekiko **aurreiritzi eta estereotipoak lantzeko beharra** ere jarri du mahaiaren gainean.

Ezinbestean, ikuspegi aldaketa honek, kolektibo hauen **parte-hartze soziopolitikoaren** erronka dakar, osasun integralean esfera sozialak duen garrantzia aitortuz, eta herri bezala aniztasun hori aberastasun moduan onartuz.

Honakoak dira helburu honen lorpenari begira adostu diren ekintzak:

5. ZAINZA MODU DUINEAN JASOTZEKO ESKUBIDEA SUSTATZEA

HELBURU ZEHATZA	ZBKIA	EKINTZA	ERAGILEAK	BALIABIDEAK	TENPORALIZAZIOA
Udalaren eskumena diren zerbitzuetan pertsonetan oinarritutako zaintzaren ikuspegia txertatzea	25	Bereziki, gizarte langileek "kalean" denbora gehiago eman dezaten giza baliabideak handitzea.	Gizarte zerbitzuak	Gizarte langilearen lan-orduak Baliabide ekonomikoak Babes politikoa	
Komunikatzeko behar bereziak dituzten herritarrekin Udalaren hartu-eremana hobetzea	26	Komunikazioa modu ulergarri batean ematen laguntzeko EUSKARRI/GIDA bat sortzea. Diseinurako jada existitu ahal diren euskarriak aztertu eta, bereziki, dibertsitate funtzionalaren inguruan herrian edo bailaran existitzen diren eragileen ekarpenak jaso. Euskarri honek jaso beharko du: - Zer hartu behar den kontutan behar bereziak dituzten herritarrekin komunikatzerako orduan. - Behar bereziak dituzten herritarrentzat existitzen diren baliabideen zerrenda (baliabideen mapa?). Kontutan hartzeko zenbait elementu: - Era irakurterrazean erredaktatua egon beharko da - Aurrera begira merkatariei eta ostalariei zabaltzeko balio beharko du, herritarrez gainera.	Berdintasun saila Gizarte zerbitzuak Dibertsitate funtzionalari lotutako elkarteak	Berdintasun teknikariaren lan-orduak Gizarte langilearen lan-orduak Baliabide ekonomikoak Herritar antolatuen elkarlanerako prestutasuna	
Komunikatzeko behar bereziak dituzten herritarrekin Udalaren hartu-eremana hobetzea	27	Komunikazioa hobetzeko euskarria/gida oinarri hartuta, FORMAKUNTZA saioak antolatu. Hasiara batean, Udalean zuzeneko arretan lan egiten duten langileentzat (gizarte zerbitzuak, BAZeko langileak, udaltzaingoa...). Bigarren fase batean, udal zerbitzuetako beste langileei ere eskainiko zaie formakuntza (kultur-etxeko langileak, liburutegikoak, kiroldegikoak...), baita herritarrekin harreman zuzena duten beste eragileei ere (ludoteka...).	Berdintasun saila Gizarte zerbitzuak Herritarren arretan dauden langileak Dibertsitate funtzionalari lotutako elkarteak	Berdintasun teknikariaren lan-orduak Gizarte langilearen lan-orduak Beste udal teknikarien lan-orduak Bestelako udal baliabide publikoak (azpiegiturak, zerbitzuak) Herritar	

				antolatuen elkarlanerako prestutasuna	
Komunikatzeko behar bereziak dituzten herritarrekin Udalaren hartu-emaña hobetzea	28	Komunikazioa hobetzeko euskarria/gida Udalean langile berriak sartzen direnerako ongi-etorri txostenean txertatuko dira.	Berdintasun saila	Berdintasun teknikariaren lan-orduak Beste udal teknikarien lan-orduak	
Zaintzaren bueltako eragileen elkar-ezagutza eta hartu-emaña bultzatzea	29	SAIO bat antolatu zaintzaren bueltan herrian eta bailaran existitzen diren zerbitzu, baliabide eta elkarlanean, bi helburu nagusirekin: - Eragile guzti hauen arteko elkar-ezagutza bultzatzeko eta, modu honetan, koordinazioa hobetu eta elkarlanean egon daitezkeen aukerak aztertze. - Baliabideen MAPA osatzeko, zerbitzu eta baliabide hauen inguruko beharrezko informazioa eta kontaktuak jasoko dituen. Baliabideen mapa hau Gizarte Zerbitzuek haien jardunean erabiltzaileei ahalik eta informazio osoena emateko baliatuko dute. Mapa hau era laburrago batean jaso eta herritarren artean banatzeko ere erabil daiteke. Ehundutik prestatzen ari diren harrera familientzako gidarekin uztartze posible den aztertu.	Gizarte zerbitzuak Dibertsitate funtzionalari lotutako elkarlanean	Gizarte langilearen lan-orduak Baliabide ekonomikoak Herritar antolatuen elkarlanerako prestutasuna	2023

<p>Zahartze aktiboa bultzatzea</p>	<p>30</p>	<p>Zahartze aktiboa bultzatzeko jada existitzen diren ekimenei jarraipena egin eta, behar izango balitz, berriak edo moldaketa txertatu. Hau egitean adinekoen talde eta elkarteekin elkarlana bilatuz (diseinuan, difusioan, ebaluazioan...)</p>	<p>Gizarte zerbitzuak San Joxepe Duintasuna Nagusilan...</p>	<p>Gizarte langilearen lan-orduak Herritar antolatuen elkarlanerako prestutasuna</p>	<p>zeharkakoa</p>
<p>Gizarte partaidetza anitza bultzatzea eta horretarako oinarriak finkatzea</p>	<p>31</p>	<p>Eratuta dauden udal partaidetza organoen identifikazioa egin (egina ez badago, behintzat). Jada existitzen diren edota sortuko diren espazio berrietan partaidetza anitzaren ikuspegia txertatzeko irizpideak definitu eta mekanismoak bilatu.</p>	<p>Berdintasun saila Partaidetza saila (Nagore)</p>	<p>Beste udal teknikarien lan-orduak</p>	<p>zeharkakoa</p>

<p>Gizarte partaidetza anitza bultzatzea eta horretarako oinarriak finkatzea</p>	<p>32</p>	<p>Haurren partaidetza soziopolitiko bultzatze aldera, beren iritziak eta beharrak aintzat hartzeko bideak jartzea.</p>	<p>Gazteria saila Partaidetza saila Herri Hezitzailearekin elkarlanean</p>	<p>Beste udal teknikariaren lan-orduak Babes politikoa</p>	<p>2024</p>
<p>Zaintzari lotuta, herrian egon daitezkeen premiak ezagutzea</p>	<p>33</p>	<p>Udala eta Mariaren Lagundiaren artean adinekoen bakardadea aztertu eta aurre egiteko proposamenen lanketarako Hitzarmena: kolektibo honen egoera, dauzkan zaintza premiak ezagutu eta hauei erantzuteko moduak idenfitikatuko dituena.</p>	<p>Berdintasun saila Gizarte zerbitzuak Mariaren Lagundia</p>	<p>Berdintasun teknikariaren lan-orduak Gizarte langilearen lan-orduak Beste erakundeekin elkarlanerako prestutasuna</p>	<p>2023</p>

4.6. HIRIGINTZAREN IKUSPEGITIK HERRI ZAINZAILEA LANTZEA

Zaintzaren antolaketa berri baterako bidean ezinbestekoa da hori ahalbidetuko duten baldintzak sortzea. Horien artean, Hirigintzatik herri zainzaileak (edo zainzaileagoak) sortzeko azpiegitura eta espazio batzuen egokitzapenak egin eta espazio zainzaileagoak sortzea beharrezkoa izango da.

Alde batetik, **irisgarritasunaren** garrantzia ikusarazi behar da, autonomia sustatu, dependentzia saihestu eta prebenitzeko ezinbestekoa (etxeak, egoitzak, kaleak, zerbitzuetarako gertutasuna, mugikortasuna...).

Gainera, herritar guztientzako, baina bereziki zaugarrienak diren pertsona eta kolektiboentzako (emakumeak, haurrak, adinekoak, behar bereziak dituztenak...), **espazio seguru eta atseginak** sortu eta bermatzea ezinbestekoa da.

Bestetik, **zaintza espazio publikoan eta modu komunitarioan egitea sustatuko duten espazioak** sortu edota eraldatzea ere garrantzitsua da, hau da, elkar-topatzeko, elkar-zaintzeko edota komunitatean zaintzeko askotariko espazioak sortzea.

Hau guztia, hau da, espazio eta azpiegitura hauen eraldaketa eta berrien sorrerarako diseinu eta plangintzetan, **zaugarrienen ahotsak eta iritziak jasotzea** (benetako parte-hartze batean oinarrituta) ezinbestekoa izango da.

Helburu honekin, Plan honetan hainbat neurri proposatu dira.

6. HIRIGINTZAREN IKUSPEGITIK HERRI ZAINZAILA LANTZEA

HELBURU ZEHATZA	ZBKIA	EKINTZA	ERAGILEAK	BALIABIDEAK	TENPORALIZAZIOA
Bergarako hirigintza zainzailea izatea eta zaintzak emateko baldintzak erraztea	34	Bitartean, Hirigintzan zainzarako, eta bereziki komunitatea sortu eta komunitatean zaintzea ahalbidetuko duten, espazioak sortu edo egokitzea: - Elkar-topaketarako espazioak - Haurrentzako, zaharrentzako... - Espaloiak... -Egoitzako irisgarritasuna	Berdintasun saila Hirigintza saila	Berdintasun teknikariaren lan-orduak Beste udal teknikarien lan-orduak Baliabide ekonomikoak Babes politikoa	zeharkakoa
Bergarako hirigintza zainzailea izatea eta zaintzak emateko baldintzak erraztea	35	Landa, auzo eta herrigunearen arteko desoreka murriztea. Zerbitzuen (bereziki, Udalarenak diren) deszentralizazioa bultzatzea.	Hirigintza saila	Beste udal teknikarien lan-orduak	zeharkakoa
Landa eremuko zaintzak errazteko baldintzak, erabiltzaileentzat izateaz gainera, zainzaileen beharrak asetzeko ere moldatzea	36	Auzotaxiaren baldintzei dagokionez: - Baserrietan bizi edo erroldatuta ez dauden zainzaileek ere erabili ahal izatea - Orduategia zabaltzea (19:00ak arte g.e.)	Hirigintza saila	Beste udal teknikarien lan-orduak Baliabide ekonomikoak	2023

<p>Eguneko zentroko espazioa goxoagoa bihurtzea</p>	<p>37</p>	<p>Eguneko zentroko itxitura "goxatzea", erabiltzaileek kanpokaldearekin konexioa izateko, beti ere intimitatea mantenduz.</p>	<p>Hirigintza saila Eguneko zentroa</p>	<p>Beste udal teknikarien lan-orduak Beste erakundeen elkarlanerako prestutasuna</p>	<p>2023</p>
--	------------------	--	---	--	-------------

4.7. ZAINZA-KRISIARI IKUSPEGI KOMUNITARIO BATETIK ERE ERANTZUTEKO APUSTUA EGITEA

Beharrak asetzen ez dituen zaintza-krisiaren aurrean eta egungo zaintza sistema bidegabearen aurrean bestelako zaintza antolaketa bat behar dela agerikoa da, bizitza erdigunean jarriz bizitza hori modu duinean iraunarazteko gizarte antolaketa bat, hain zuzen, eta ez orain arte bezala kapitalaren mesedetan antolatutako sistema.

Antolaketa edo sistema aldaketa behar horretatik Euskal Herriko Mugimendu Feministatik Euskal Herrian **zaintza sistema publiko-komunitario** bat eraikitzeke hasteko apustua aldarrikatzen du.

Hala ere, iparra edo norantz joan nahi den argi izan arren, bidea oraindik ez dago argi. Oraindik ere **eztabaida eta hausnarketa** handia behar da, izan ere, **nolakoa da zehazki nahi edo irudikatzen dugun sistema publiko-komunitario hori?** Zein ardura izan beharko luke administrazioek eta zein komunitateak? Eta nolakoa izan beharko litzateke haien arteko harremana? Komunitatea diogunean zein komunitateri egiten zaio erreferentzia? Zer da komunitatea?

Erantzun baino galdera gehiago ditugunez, guzti honetan kolektiboki pentsatzen hastea garrantzitsua da, eztabaida honetan hainbat elementu kontuan izanik:

Alde batetik, **komunitatea eta administrazio publikoaren** arteko harremana eta bakoitzaren ardura eta funtzioak lantzea, komunitatea ez dadin bihurtu administrazio publikoen hutsuneak betetzeko tresna.

Bestetik, **baldintzak sortu behar dira komunitatea aktibatu eta komunitatea zaintzan inplikatu** ahal izateko. Izan ere, gaur egungo bizimodu edo bizi estiloarekin (lan produktiboari ematen zaion zentraltasuna eta dedikazioa-denbora-, indibidualismoa eta harremantzeko moduak...) oso zaila da sistema komunitario baterako trantsizioa irudikatzea. Sistema aldaketa honekin batera, ezinbestekoa izango da **komunitatea ehuntzeko baldintzen eta estrategiaren garrantzia** azpimarratzea, ez bait da berez existitzen den.

Hausnarketa honetan, beste **esperientzia edo proiektu komunitarioak ezagutu, probatu eta esperimentatzea** garrantzitsua izango da, bidea egiten hasteko, praktikatik eta froga eta akatsetik ikasteko. Porrot egiteko beldurrik izan gabe, ausartak izan eta proiektu txiki eta handi konkretuetatik ikasteko eta bidea egiteko irekita egotea.

Helburu honekin, plan honetan bide hau urratzen hasteko hainbat proposamen egiten dira: batzuk proiektu edo ekimen zehatzak dira, jada martxan daudenak jarraitzea; beste batzuk berriz, noranzko honetan besteengandik ikasi eta inspiratzeko balioko duten ekintzak dira.

7. ZAINZA-KRISIARI IKUSPEGI KOMUNITARIO BATETIK ERE ERANTZUTEKO APUSTUA EGITEA

HELBURU ZEHATZA	ZBKIA	EKINTZA	ERAGILEAK	BALIABIDEAK	TENPORALIZAZIOA
Zaintzen ekosisteman existitzen diren antolakundeak ezagutzea eta koordinazioa bultzatzea	38	<p>Zaintza lanekin herri eta bailara mailan existitzen diren elkarten identifikazio eta elkar-ezagutzea erronda bat egitea.</p> <p>Momentu hauek baliatuko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Elkar ezagutzeko - Beharrak ezagutzeko - Elkarlan eta koordinazioa bultzatzeko - Baliabide eta zerbitzuen maparen kontrastea egiteko. 	Gizarte zerbitzuak Bergara eta inguruetako elkarte ezberdinak	Gizarte langilearen lan-orduak Herritar antolatuen elkarlanerako prestutasuna	2024
Komunitatea sortzeko aurre-baldintzak jartzea	39	<p>Udalak, tokiko erakunde moduan, komunitatea sortzeko baldintzak jartzeko ardurari heltzea.</p> <p>Bide honetan, zaintzari lotutako beste herrietako esperientzia komunitarioak ezagutu, elkarrekin hausnartu eta Bergaran martxan jartzeko aukera baloratu.</p> <p>Baloratu, baita ere, izurrite garaian aktibatutako sarearen berraktibazioa.</p>	Berdintasun saila Ehundu	Berdintasun teknikariaren lan-orduak Bestelako udal baliabide publikoak (azpiegiturak, zerbitzuak)	2023

<p>Etxebizitzen egitura zaintzaren beharretara jartzea</p>	<p>40</p>	<p>Zainduen eta zaintzaileen beharrei modu egokiago batean erantzuten lagunduko duen etxebizitza eredu alternatiboen inguruan hausnarketa eta ezagutza bultzatu. Herrian dauden zaintzarekin eta etxebizitzarekin lotutako behar ezberdinei erantzuteko moduak esploratu (beste eredu batzuk ezagutz...).</p>	<p>Berdintasun saila Ehundu</p>	<p>Beste udal teknikarien lan-orduak Bestelako udal baliabide publikoak (azpiegiturak, zerbitzuak) Babes politikoa</p>	<p>2025-2026</p>
<p>Bakardadeari modu komunitarioan erantzutea</p>	<p>41</p>	<p>Bakardadeari aurre egiteko estrategia moduan komunitatearen partaidetza bultzatu. Mariaren Lagundiarekin sinatutako Hitzarmenaren ondorioak aztertu, ekimen komunitarioek prozesu honetan kabidarik baduten ikusteko.</p>	<p>Gizarte zerbitzuak Berdintasun saila Ehundu</p>	<p>Berdintasun teknikariaren lan-orduak Gizarte langilearen lan-orduak Bestelako udal baliabide publikoak (azpiegiturak, zerbitzuak)</p>	<p>2024</p>
<p>Tokiko estrategiaz gaindiko estrategiekin koordinatzea</p>	<p>42</p>	<p>Debagoiena 2030ren baitan, inklusioaren atalean, zaintzaren gaiari lantzen ari direna ezagutzea eta elkarlanerako bideak bilatzea.</p>	<p>Berdintasun saila Debagoiena 2030</p>	<p>Berdintasun teknikariaren lan-orduak Beste erakundeen elkarlanerako prestutasuna</p>	<p>zeharkakoa</p>

5. ADIERAZLEAK

ZBKIA	ADIERAZLEAK
1	<ul style="list-style-type: none"> - Helburu honekin antolatzen diren hitzaldi, tailer eta kanpaina kopurua. - Horien onuradun kopurua, generoaren arabera berezita. - Hauen antolaketan herri eragile ezberdinekin egondako elkarlana. - Antolatzaileek hauen antolaketa eta helburuen betetze-mailaren inguruan egiten duten balorazioa.
2	<ul style="list-style-type: none"> - Zaintza lanei ikusgarritasuna eta aitoriza egiteko antolatutako ospakizun edo aldarrikapen ekimen kopuruak. - Ekimen horien antolakuntzan parte hartutako eragile kopurua. - Horietan parte hartutako pertsona kopurua, generoaren arabera berezita. - Antolatzaileek ekimen bakoitzaren inguruan egindako balorazioa.
3	<ul style="list-style-type: none"> - Ospatu edo antolatutako ekimen kopurua. - Ekimen horien antolakuntza parte hartutako eragile kopurua. - Ekimen horietan parte hartutako pertsona kopurua, generoaren arabera berezita. - Antolatzaileek ekimen bakoitzaren inguruan egindako balorazioa.
4	<ul style="list-style-type: none"> - Helburu honekin antolatzen diren ekimen kopurua. - Ekimen horien antolaketan herriko hezkuntza eta aisialdi eragile ezberdinen parte hartzea eta elkarlana. - Ekimen horien onuradun kopurua, generoaren arabera berezita. - Ekimen horien antolatzaileak egindako balorazioa.
5	<ul style="list-style-type: none"> - Helburu hauek lantzeko Bergarako Udala eta Mariaren Lagundiaren artean egindako bilera kopurua. - Bilera horietatik ateratako proiektu edo ekimen zehatzak. - Proiektu eta ekimen horien parte-hartzaile eta onuradunak, generoaren arabera berezita. - Bi aldeek elkarlan honen eta honen ondorioz sortutako proiektu eta ekimenen inguruan egindako balorazioa.
6	<ul style="list-style-type: none"> - Unitate didaktikoa sortzeko aukera baloratzeko hezkuntza zein herritar eragile ezberdinekin egindako bilerak. - Unitate didaktikoa sortzeko finantziarioa lortzeko bide ezberdinen inguruan egindako azterketak. - Unitate didaktikoa sortzea. - Unitate didaktikoaren sorkuntza prozesuan parte hartutako eragileak. - Unitate didaktiko horren onuradun kopurua, generoaren arabera berezita.
7	<ul style="list-style-type: none"> - Helburu honekin antolatutako hitzaldi, tailer edota kanpaina kopurua. - Horien antolakuntzan parte hartutako eragile ezberdinak. - Horien irismena edo onuradunen kopurua, generoaren arabera berezita. - Horien antolatzaileak egindako balorazioa.
8	<ul style="list-style-type: none"> - Helburu honekin antolatutako hitzaldi, tailer edota kanpaina kopurua. - Horien antolakuntzan parte hartutako eragile ezberdinak. - Horien irismena edo onuradunen kopurua, generoaren arabera berezita. - Horien antolatzaileak egindako balorazioa.
9	<ul style="list-style-type: none"> - Helburu honekin hartutako neurri edo egindako ekimen kopurua. - Horien antolakuntzan LHko zentroekin egindako elkarlana. - Neurri horien irismena edo onuradunen kopurua, generoaren arabera berezita. - Neurri horien sustatzaileak egindako balorazioa.

<p>10</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Helburu honekin antolatutako ekimen kopurua. - Horien antolakuntzan parte hartutako herritar eragile ezberdinak (bereziki mugimendu feminista eta anti-arrazista). - Ekimen horietan parte hartu duen pertsona kopurua, generoaren arabera berezita. - Ekimen horien antolatzaileak egindako balorazioa.
<p>11</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Helburu honekin antolatutako ekimen kopurua. - Horien antolakuntzan parte hartutako eragile ezberdinak (bereziki hezkuntza eragileak). - Horien irismena edo onuradunen kopurua, generoaren arabera berezita. - Horien antolatzaileak egindako balorazioa.
<p>12</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Zaintza lanei komunitatetik ere erantzuteko beharrezko baldintzen identifikaziorako egindako balorazioak. - Balorazio horretan herritar eta herri eragile ezberdinen inplikazio bilatzea. - Baldintza horiek lantzeko martxan jarritako ekimenak. - Martxan jarritako ekimenetan inplikaturako herritar eta herri eragileak, generoaren arabera berezita.
<p>13</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ate ireki jardunaldiak antolatzea. - Ate ireki hauen antolakuntza adineko elkarte eta taldeekin elkarlanean egitea. - Ate irekietan parte hartutako pertsona kopurua, generoaren eta adinaren arabera. - Ate irekien antolatzaileak egindako balorazioa.
<p>14</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ikastaro hau Bergaran eta jada zaintza lanetan diharduten langileentzat egokiak diren baldintzetan ematea. - Ikastaro hau egiten duten pertsona kopurua, generoaren eta jatorriaren arabera. - Ikastaroa jaso eta antolatu dutenek egindako balorazioa.
<p>15</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Lanean diharduten zaintza langileak ikastaroa egin ahal izateko zaintza zerbitzua antolatzea. - Zaintza zerbitzu honetaz baliatutako pertsona kopurua, generoaren arabera berezita.
<p>16</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Zaintza langileentzako egokitutako euskara ikastaroak antolatzea. - Ikastaro hau jaso duten pertsona kopurua, generoa eta jatorria berezita. - Ikastaroa jaso eta eman dutenen balorazioa.
<p>17</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Zaintzaileen lan-poltsa eratzeko aukeren azterketa egitea (Lanbideren aukera baloratu eta beste herrietako esperientziak ezagutu). - Zaintzaileen lan-poltsa eratzeta. - Lan-poltsan apuntatutako eta erabiltzaile pertsona kopurua, generoaren arabera berezita. - Lan-poltsan apuntatu eta erabiltzaileen balorazioa.
<p>18</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Hartu-eman eta koordinazio espazioa definitzea. - Egindako bilera kopurua eta landutako gaiak. - Bi aldeek espazio honen inguruan egiten duten balorazioa.
<p>19</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Emakume Etxearen proiektua sortu bitartean hau bultzatzeko egindako dinamikak. - Dinamika hauen parte-hartzaile kopurua, generoa, jatorria eta adinaren arabera. - Antolatzaile eta parte hartzaileek dinamika hauen inguruan egindako balorazioa. - Dinamika hauetatik sortutako bestelako ekimen edo dinamikak, eta horien irismen edo onuradunak. - Emakume Etxearen eratze prozesuan helburu hau ere kontuan izatea.

<p>20</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Aholkularitza honen aukerak baloratzeko urratsak ematea. - Aholkularitza zerbitzua eskaintzea. - Aholkularitza zerbitzu horren eskaintzen dituen zerbitzuak. - Aholkularitza zerbitzu horren irismena edo onuradun kopurua, generoa, jatorria eta adina bereizita. - Aholkularitza zerbitzu horren erabiltzaileen balorazioa.
<p>21</p>	<ul style="list-style-type: none"> - ELZ kontratatzeko lizitazioan langileen lan-baldintza hobetzera begira txertatutako elementuak. - Langileen lan-baldintza zer nolako hobekuntzak behar diren ELZko langileekin batera landu. - Udal zerbitzuetako langileentzako bestelako lan-baldintza hobekuntza aukerak aztertzea eta martxan jartzea.
<p>22</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Babestu edo lagundutako ekimen edo aldarrikapen kopurua.
<p>23</p>	<ul style="list-style-type: none"> - ELZko zerbitzuan daitezkeen indarkeria kasuei aurre egiteko protokoloa onartzea. - Protokoloaren jarraipena egitea. - Protokolo hauek bestelako zerbitzuetara ere hedatzeko saiakera.
<p>24</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Helburu hau duten ekimen kopuruak. - Ekimen horien irismen edo onuradun kopurua, sexuaren arabera bereizita. - Ekimen horien antolatzaile eta onuradunen balorazioa.
<p>25</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Programaren malgutasuna bultzatzen duten ekinbide kopurua. - Programako erabiltzaile eta erabiltzaile potentzialek programari buruz duten iritzi eta ikuspegiaren jasoketa egiteko ekintzak aurrera eramatea. - Programaren estigma deuseztatzeko garatutako ekintza kopurua. - Programaren inguruan jaso edo identifikatzen diren aldaketa proposamenak GFAari trasladatzea.
<p>26</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Dibertsitate funtzionaleko familiarrek dituzten beharren identifikazioa egitea. - Identifikatutako beharrei erantzuteko martxan jarritako estrategia edo ekimenak. - Ekimen horien irismena edo onuradun kopurua, sexuaren arabera bereizita. - Ekimen horien antolatzaile eta onuradunen balorazioa.
<p>27</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Helburu hau duten esperientziak ezagutzeko egindako ekintzak. - Esperientzia horien ezagutza jaso duten udal sail edo herritar kopurua. - Bergaran esperientzia horietatik jasotako ideia edo irakaspenak garatzeko prestutasuna.
<p>28</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Bergarako zaintza zerbitzuetan ikuspegi honekin lan egiten den ala ez, eta ikuspegi hau txertatzeko zailtasun eta erronkak ezagutzeko zerbitzu horietako arduradunetatik informazioa jasotzeko ekintzak garatzea. - Jasotako informazioan oinarrituta ikuspegi hau txertatzeko egindako aldaketak. - Aldaketa hauek izandako irismen edo onuradun kopurua, generoaren arabera bereizita.
<p>29</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Departamentuak izandako hazkundera. - "Kalean" emandako denbora kopurua igotzea.
<p>30</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Euskarri edo gida sortzea. - Gidaren sorkuntza eta diseinua dibertsitate funtzionaleko elkarte eta eragileekin elkarlanean egitea. - Gida irakurterrazean erredaktatua egotea. - Gida udal zerbitzuetako langileen artean zabaltzea.
<p>31</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Antolatutako formakuntza kopurua. - Formakuntza hori jaso duten udal langile kopurua, zerbitzuaren eta generoaren arabera bereizita. - Formakuntza antolatu eta jaso dutenen balorazioa.

32	- Euskarri/gida hori langile berrien ongi-etorri txostenean txertatzea.
33	- Saioa antolatzea. - Saioan parte hartu duten eragile eta pertsona kopurua, generoaren arabera bereizita. - Saioaren inguruko antolatzaile eta parte-hartzaileen balorazioa. - Saio horretatik elkarlanean sortutako ekimenak.
34	- Zahartze aktiboa bultzatzen duten ekimenen jarraipena egitea. - Ekimen horien antolatzaile, erabiltzaile eta erabiltzaile potentzialen artean ekimen horien inguruko iritzi eta balorazioa jasotzeko ekimenak egitea. - Zahartze aktiboa helburu duten ekimen kopuruak. - Ekimen horiek adineko elkarrekin elkarlanean antolatzea. - Ekimen horien irismena edo onuradun kopurua, generoaren arabera bereizita. - Ekimen horien antolatzaile eta parte-hartzaileen balorazioa.
35	- Udal partaidetza organoen identifikazioa egitea. - Organo horietan partaidetza anitza sustatzen dela aztertzea. - Partaidetza anitza sustatu/bermatzeko sortutako irizpide eta mekanismoak. - Irizpide eta mekanismo horiek aplikatutako organo/espazio kopurua.
36	- Haurren partaidetza soziopolitiko bultzatzeko hartutako neurriak. - Neurri hauek haurren iritzia eta beharrak aintzan hartuta diseinatzea. - Haurren iritzi eta beharrak jasotzeko ekimenak garatzea. - Hartutako neurrien inguruko balorazioa.
37	- Hitzarmena sinatu eta aurrera eramatea. - Bergarako adinekoen bakardadearen inguruko azterketa gauzatzea. - Azterketa horretan oinarrituta bakardade horri aurre egiteko proiektuak martxan jartzea. - Proiektu horien onuradun kopurua, generoaren arabera bereizita. - Proiektu horien balorazioa.
38	- HAPOaren diseinuan herri zaintzailearen begirada txertatzea. - HAPOaren diseinu prozesuan kolektibo zaugarrienen iritzia jaso eta parte-hartzea bermatzeko neurriak hartzea. - Herri zaintzaile baterako hartutako neurriak.
39	- Ikuspegi honetatik edo helburu honekin sortu, eraldatu edo egokitutako espazio kopurua. - Horiek herritar eta kolektibo zaugarrien iritzia kontuan izanda egitea. - Espazio horien erabiltzaile kopurua, generoaren eta adinaren arabera bereizita.
40	- Herrigune/erdigunetik kanpo ezarri diren udal zerbitzu kopurua. - Desoreka horiek murrizteko hartutako neurriak.
41	- Auzotaxi zerbitzua baserrietan eroldatuta ez egon arren bertan lana egiten duten zaintzaileei ere zabaltzea. - Auzotaxiaren zerbitzua zabaltzea. - Neurri hauen onuradun kopurua, adina eta generoaren arabera bereizita. - Auzotaxi zerbitzuaren erabiltzaileen balorazioa.
42	- Itxiturak sortutako kezka aztertu eta konponbide egokiena emateko neurriak hartzea. - Hartutako neurriak eguneko zentroko langile eta erabiltzaileen behar eta iritzia jasota hartzea.
43	- Eskola eta adinekoen zentron artean egindako ekintza kopurua. - Ekintza horietan parte hartzaile kopurua, adina eta generoaren arabera bereizita. - Ekintza horien antolatzaile eta parte-hartzaileen balorazioa. - Adinartekotasuna bultzatzen duten bestelako ekimenak.

44	<ul style="list-style-type: none"> - Elkar-ezagutza errondan egindako elkartutako eragile kopurua. - Elkar-ezagutza horietatik sortutako proiektu edo elkarlanak. - Eragileek baliabideen mapan egindako ekarpenak. - Erronda horretan parte hartutako eragileek egindako balorazioa.
45	<ul style="list-style-type: none"> - Beste herrietako esperientziak ezagutzeko egindako elkarrizketa, bisita eta bilerak. - Horietan parte-hartutako udal sail eta eragile kopurua. - Beste esperientzietatik ikasitakoak eta hartutako ideiak Bergaran martxan jartzeko hausnarketa eta lan bilerak. - Horietan parte-hartutako udal sail eta eragile kopurua. - Prozesu honetatik sortu edo abian jarritako proiektuak. - Proiektu horien onuradun kopurua, generoaren arabera bereizita. - Prozesuan zehar inplikatu eta parte-hartu duten eragileen balorazioak.
46	<ul style="list-style-type: none"> - Eredu alternatiboen ezagutza eta hausnarketa bultzatzeko ekintzak. - Ezagutza eta hausnarketa horietan parte hartutako eragile eta norbanako kopurua, generoaren arabera bereizita. - Ezagutza eta hausnarketa horietatik sortu edo abiatutako proiektuak. - Proiektu horien onuradun kopurua, generoaren arabera bereizita. - Prozesuan zehar inplikatu eta parte-hartu duten eragileen balorazioak.
47	<ul style="list-style-type: none"> - Mariaren Lagundiarekin egindako hitzarmenetik sortutako proiektuan komunitatearen inplikazioa eta parte-hartzea ere egotea. - Inplikazioa horren bidean herriko eragile eta norbanakoekin egindako lanketa (hausnarketa, lan-bilera edo kotrasteak).
48	<ul style="list-style-type: none"> - D2030en baitan zaintzak daukan lekua/zaintzaren lanketa nola egiten ari den ezagutu eta elkarlanerako bideak topatzeko egindako bilerak. - Bilera horietatik sortutako elkarlan edo proiektuak. - Bilera horien balorazioa.

6. PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Egungo errealitatea aldatzen denez, nahitaezkoa da besteak beste ekintza planaren inplementazioaz eta jarraipena emateaz arduratuko den batzorde bat osatzea. Zaintzarena bezalako gai konplexu eta estruktural honi heltzeko, garrantzitsua da batzorde horretan planean ardura maila altua duten eragileen partaidetza izatea. Beraz, planari jarraipena eman eta ebaluatzeaz arduratuko den batzordea **BERDINTASUN** eta **ONGIZATE** sailek osatuko dute.

Maila operatiboan, sailtako teknikariek hartuko dute parte, nahiz eta arduradun politikoak ere izango diren batzorde honen parte. Hala eta guztiz ere, arazo potolo eta estruktural honen aurrean, esparru guztietatik jorratzea ezinbestekoa denez, Berdintasun eta Ongizate sailetatik ez ezik, Udaleko beste sail batzuen parte hartzea eta inplikazioa beharrezkoa izango da.

Jarraipen batzordea **urtean, gutxienez, 2 aldiz batuko** da:

- **MAIATZEAN**, pasatako urtearen ebaluazioa egin eta hurrengo urteko plangintza osatzeko.
 - Ebaluazioa: urte horretarako aurreikusitako ekintza eta neurrien ebaluazioa egingo da, hauen helburuen eta ekintzen betetze-maila aztertu eta urtean zehar egondako zailtasun eta hobetzekoei erreparatu.
 - Plangintza: urte berrirako plangintza egingo da. Urte horretarako planean aurreikusita zeuden ekintza eta neurriak urtean zehar antolatu, hauek aurrera eramateko beharrezko izango diren baliabideak aurreikusi eta aurrera eramateaz arduratuko den pertsona, eragile edo saila gonbidatuko da. Era berean, pasatako urteko ebaluaziotik jasotako ikaspenak aplikatuko dira, eta egin gabe geratutako ekintzak urte horretan ere sartzeko aukera aztertuko da.
 - Bilera hau maiatzean egitea erabaki da udal aurrekontuak osatzen hasi aurretik egiteko, eta hala, aurreikusten diren ekintzak aurrera eramateko beharrezko baliabide ekonomikoak esleitzeko.
- **AZAROAN**, urteko jarraipen bilera egingo da. Bilera honetan urte horretarako plangintzaren erreposoa egingo da, planifikatutakoaren betetze-maila aztertuz.

Beharrezkoa balitz, bestelako bilerak ere egiteko aukera egongo da, bai batzorde mailan, baita bestelako eragile edo saio batzuekin koordinatzeko.

7. BIBLIOGRAFIA

- Bizitzak Erdigunean Euskal Herriko Koordinadora Feminista. 2022. Zaintza sistema publiko-komunitario feminista baterantz. Hemen eskuragarri: <https://colectivaxk.net/wp-content/uploads/2022/07/Zaintzako-sistema-publiko-komunitario-feminista-baterantz.pdf>
- Borderías, Carrasco, Torns. 2011. El trabajo de cuidados. Historia, teoría y políticas. Hemen eskuragarri: https://www.fuhem.es/media/cdv/file/biblioteca/Economia_critica/El_trabajo_de_cuidados_C. Carrasco C. Borderias T. Torns.pdf
- Euskal Herriko Unibertsitatea, Soziologia eta Gizarte Langintza Sailak. 2019. Diagnóstico de situación de las personas trabajadoras del hogar en la CAE y las necesidades a las que dan cobertura.
- EMAGIN. 2020. Zaintza lanen demokratizaziorantz. Beterri Buruntzaldeako zaintza erregimenaren diagnostikoa eta ekintzarako proposamena. Hemen eskuragarri: https://www.emagin.eus/wp-content/uploads/2020/10/Emagin_beterri-buruntzaldea_publicazioa.pdf
- EUSTAT. 2022. Erantzunkidetasuna eta kontziliazioa. Hemen eskuragarri: <https://eu.eustat.eus/berdintasuna/martxoak8/20220308.html>
- García Ibañez, Jorge. 2022. Derecho al cuidado: un abordaje desde los derechos (humanos) (The right to care: A (human) rights approach). Hemen eskuragarri: <https://opo.iisj.net/index.php/osls/article/view/1330>
- Hochschild, Arlie 2001. Las cadenas mundiales de afecto y asistencia y la plusvalía emocional. En Will Hutton y Anthony Giddens (Coords.): En el límite: la vida en el capitalismo global, (pp. 197-208). Barcelona: Tusquets editores.
- Ortiz Monera, Rosa María. 2017. Cadenas globales de cuidados, crisis y deudas. Un estudio de caso. Universitat de Barcelona, Barcelona Hemen eskuragarri: https://www.tesisenred.net/bitstream/handle/10803/471536/RMOM_TESIS.pdf?sequence=1&isAllowed=y
- ONU Mujeres. 2014. Porque nos preocupamos de los cuidados. Hemen eskuragarri: <https://colectivaxk.net/wp-content/uploads/2020/01/por-quc3a9-nos-preocupamos-por-los-cuidados.pdf>
- ONU Mujeres. 2018. El trabajo de cuidados: Una cuestión de derechos humanos y políticas públicas. Hemen eskuragarri:

<https://mexico.unwomen.org/es/digiteca/publicaciones/2018/mayo-2018/mayo/publicacion-de-cuidados>

- Organización Internacional del Trabajo. Convenio sobre el trabajo decente para las trabajadoras y los trabajadores domésticos (núm. 189). Junio de 2011. Hemen eskuragarri: https://www.ilo.org/wcmsp5/groups/public/---americas/---ro-lima/---sro-san_jose/documents/publication/wcms_203988.pdf
- Pérez Orozco, Amaia. 2007. Cadenas globales de cuidado. Documento de trabajo 2. Santo Domingo: Instituto Internacional de Investigaciones y Capacitación de las Naciones Unidas para la Promoción de la Mujer (UN-INSTRAW). Hemen eskuragarri: <https://trainingcentre.unwomen.org/instraw-library/2009-R-MIG-GLO-GLO-SP.pdf>

PROIEKTUAREN LIDERGOA



DIRUZ LAGUNDUA



PROIEKTUAREN DINAMIZAZIOA



